




uk

100. zenbakia / 2006 maiatzak 21

# XXIII Getxo

## Feria de ARTESANÍA

### ESKULANGINTZA azoka



mayo 26-27-28 maiatz

Areetako Geltoki Plazako Karpan • 2,50 € • 11-14,30h / 17-21h -  
BBKREN TXARTEL GORRIAZ, BESTE SARRERA BAT DOHAINIK.

## UK galeria > Juan Luis Markaida



Nerabea zelarik aitari hartzen zion kamerarekin argazkiak egiten hasi zen Juan Luis Markaida (Bilbo, 1957). Ogibidez irakaslea da eta Leioako institutuan egiten du behar gaur egun. Beti kamera aldean ibiltzen da Juan Luis eta era guztietako argazkiak ateratzen baditu ere, giza-argazkalaritza du gustuko. Ez da inoiz lehiaketazalea izan eta horietara oso lan gutxi aurkeztu ditu. Aipagarria da Fotopresen finalista lotu zela gizarte arloan. Itoiz musika talde gogoangariaren argazkilaria ere izan da Juan Luis. Taldearen diskoen azal bi (Getxon zuzenean grabatu zutena eta *Espaloian*) Juan Luisenak dira. Argazkilarik bikaina izateaz gain, marrazkilaria abila ere bada Markaida. Ipuin liburuen azalak egin ditu eta testu libururen batentzako ilustrazioak ere bai. Azkenik, aipatu behar dugu aldizkari honetan bere argazki asko ikusi dutela argia.



Enborra Madrilgo Retiroan

«Enarak goian hara eta hona, luzaroan eguraldi ona» Euskal esaera zaharra

## Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Eskalatzaleak, Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Photoshop.
7. LEHEN ETA ORAIN. Mimenaga ingurua, 2005-2006.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Asier Basterretxea.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Galeako fortea, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Metroa Getxon, Mikel Martinez.
30. BERBETAN. Julio Ibarra, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Calva leihaketa Astrabuduan, A. M.

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Denboraldiaren amaiera.
43. MUSIKA. Doctor Deseoren azkena. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Pio Baroja. Liburuen erreseinak.
45. KIROLAK. Getxo Arraun Taldea.

### EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Alfred Llorente, Oiane Moran.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbao.

### AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Sopelako Völker tabernara.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Getxoko institutua, 1977. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Txetxu Ugalde.



30 Julio Ibarra



11 Asier Basterretxea

### Berbetan

Bilbotarra da, edo are gehiago, santutzuarra. Itzal handiko pertsonaia izaten segitzen du, telebistako aurkezle zein Metroko komunikazio-buru.



26 Galeako fortea



34 Calva jokoa



49 Adrian Rojo



54 Txetxu Ugalde

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubra 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Aritz Bregel

FOTOGRAFIA: Asier Mentraka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILAK: Unai Brea, Bitor Egunola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezcua, Itxaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamirua, Amaia Ariaga, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat gaitzazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteentzako Topaguneko partaidea da

	Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du	
Ixasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta		

	Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du
---	---

	Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du
	Aldizkari honek Berango Udalaren dirulaguntza jaso du

	Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du
	Aldizkari honek Erandioko Berbets Euskaraz elkartean laguntza jasotzen du

	Aldizkari honek Gorlizko Udalaren dirulaguntza jasotzen du
	Aldizkari honek Sopelako Udalaren laguntza jasotzen du

	Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du
---	--

	Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du
---	--

	94 491 13 37 uk@aldizkaria.biz
---	-----------------------------------

# gugeu

## 100 zenbaki


**Hauxe duzue** UK aldizkariaren 100. zenbakia; zifra borobila. lazko urte bukaeran aldizkariaren hamargarren urteurrena ospatzeko gure ibilbidea laburbiltzen zuen ale berezia plazaratu genuen eta, hortaz, 100. zenbakia ospatzea larregi iruditu zaigu. Efemeride hau dela-eta, ale honetan egin dugun gauza bakarra Julio Ibarra ezaguna elkarrizketatzea izan da. Izan ere, UKren 1. zenbakian berari egin genion elkarrizketa nagusia eta 100. honetan interesgarria iruditu zaigu atzera elkarrizketatzea Julio Ibarra berritsua.

Bestetik, laburrean bada ere, gure eskualdearekin zerikusi handia daukan liburu baten berri ematen dugu: *La verdadera historia del kalimotxo* (Kalimotxoaren benetako historia). Egileek hitzaurrean aipatzen duten moduan, UKn aspaldian argitaratu genuen elkarrizketa bat irakurri eta gero otu zitzaizen liburua egitea. Esan behar da elkarrizketa hartan edari alai honen izenaren jatorriaren berri ematen genuela. 1972an Portu Zaharreko jai batzordeko kideek asmatu zuten *kalimotxo* berba. Bertsio bi daude. Batak dio Erandioko lagun bat, Kalimero ezizena zeukana, Portu Zaharrean azaldu zela, eta nonork esan zuen: *Kalimero motza da gero!* Horrela, Kali+motz= kalimotxo. Bigarren bertsioak dio, Kalimero Mortxongo izeneko bere lagunagaz azaldu zela Portu Zaharrean eta ezizen bi hauen elkarketatik sortu zela kalimotxo berba. Kali+Mortxon= kalimotxo. Horrelako bitxikeriak eta hamaika kontu gehiago aurkituko ditu irakurleak guk biziki gomendatzen dugun liburu honetan.

Ondo ibili! 4

UK-ko lantaldea


## matematika aplikatua



leihatila > Maddi Albizu

## Bill Gates-en eskuzabaltasuna

Gizakion ekintzak baloratzeko, gutxienez, bi ikuspuntu daude. Bata, ekintzaren jatorria edo zergatia eta, bestea, ekintzaren ondorioa. Sarri-sarri fede onez egindakoak ondorio ezin kaltegarriagoak eman ditzakeen era beretsuan, fede txarrez burututako ekintzaren ondorioak erabat onuragarriak izan litezke. Adibide futbolistikoa ezin hobeto datorkit. Norberaren atean sartutako gola lehenengoaren adibidea da (asmo ona baina...). Argi dago, beraz, jatorria eta emaitzak banatu behar direla, nahiz eta batzuetan bat datozen. Bill Gatesek 10.000 milioi dolar eman ditu azken bost urteotan bere fundazioaren bidez Afrikan sida, malaria eta horrelakoen kontra borrokatzeko. Hori eskuzabaltasuntzat jo izan da zenbait komunikabidetan. Kasu honetan ere ekintzaren jatorria eta ekintzaren ondorioak bereiztu beharrean gaude. Dirutza hori benetan horretara bideratzen bada, ongietorria izan dadila. Ez dezagun hori, ordea, eskuzabaltasunarekin nahastu. Ez naiz Gatesen izakera eskuzabala zalantzan jartzen ari (zorionez ala zoritxarrez ez baitut ezagutzen morroi hori), baina eskuzabaltasuna bertute handiegia da emandako diru-kopuruaren arabera neurtzeko. Ondorioak? onak; jatorria? ez dakit. 4



KANTABRIE, 2006KO MARTATZA

**Eskalatzaileak** / Negu osoa errokodromoan eman ondoren, horma berean gora eta behera, behera eta gora... Eguzkiak lagunduta kalera iriteteke ordua heldu zaie eskalatzaileei. Naturak emandako altxorak gozatzeko momentu ederra izateaz gain, erronka berriei aurre egiteko aukera paregabea ere bada, harkaitzetako zein mendietako zirrikitu, arrakala eta zulo guztiei etekina ateraz. Leku irekietan bizi daitezkeen sententzioak bestelakoak dira: haizea aurrepigan, kresalaren usaina, mendi berdeen distira, eguzkiaren berotasuna... Egun batez spiderman izan gura etc? m / Argazkia: **Asier Mentraka**

**Bizkaiko**  
Bertsolari Elkarte

# Ipar Uribeko bertsolari txapelketako finala 06


Miren Loizaga,  
Miren Ibarluzea  
Olatz Ibarluzea  
Itxaso Paia  
Ekaitz Larrazabal "Katxo"  
Peru Vidal

## Areeta

### maiatzak 20

Andres Isasi Musika Eskolan  
19:00etan

**BFA DFB** Bizkaiko Funtzionario Elkarte  
**bbk**  
**uk**



### Iraganez doa denbora\* beti / MIMENAGA INGURUA 2005-2006

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; mundutik etxera deika



Algortako Geltoki plaza, 2006ko maiatza

Testua: **Xa2 Paia** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Kaixo, Rocío, zer moduz?  
—Zu zer moduz Guadalupe?  
Zintzoa izan, behingoarren  
egia entzun nahi nuke.  
Zer moduz Getxo aldean,  
ondo hartu al zaituzte?  
—Txarto ez naiz bizi, baina  
hain ondo ere ez uste.  
Gizon bat ezagutu dut,  
Jose Ramon Mendikute,  
eta ezkontzeko eguna  
laster jarriko digute...  
—Guapoa da? —Ez gehiegi,  
badauzka laurogei urte...  
Tira, zer egin behar den  
paper zikin baten truke!

—Kaixo Yusuf! —Kaixo ama,  
zelan dago Wagadugu?  
—Hemendik joan zinela  
bada bi urte inguru;  
hemengoa beti berdin,  
zu zer moduz munduz mundu?  
—Bilbon, bertako jendeak  
primeran hartu gaitu gu,  
laguntza eman digute...  
—Baina, semea, seguru?  
—Ama batekin gezurra  
bizirautea estu du:  
Zein zuriak diren denak,  
azal, bihotz eta buru  
eta guk beltzak izanda  
beltzak ikusten ditugu!

—Kaixo, Luana, bihotza,  
zure falta sumatzen dut,  
Brasov utzi nuenetik  
pasatu dira hil batzuk.  
—Dragos ez dizut entzuten...  
Entzuten al didazu zuk?  
Dragos, kari, haurdun nago  
bikiak espero ditut!  
—Ez dizut... ezer entzuten...  
jardun hitza... entzun dizut...  
—Jardun ez, haurdun esan dut!  
—Luana asko maite...  
PI, PI, PI...

\* Doinua: *Habanera*

## txistea &gt; aterpe barik

Marraskiloa barearekin gurutzatu da Bilboko Albia Lorategietan, eta bere artean pentsatu du:  
—Benetan, gero eta larriagoa da etxebizitzaren arazoa Bilbon!!!

888 txiste, Kike Amonarriz (Argia, 2004)

## liburua &gt; kalimotxoaren benetako historia



Kalimotxoaren izena Algortako Portu Zaharreko jaietan asmatu ei zen, 1972. urtean

**Joan den** maiatzaren 11n *La verdadera historia del Kalimotxo (Kalimotxoaren benetako historia)* liburua aurkeztu zuten Funky Projectsen Bilboko bulegoan. Azken 40 urteotan euskal nortasunak izan duen garapena kalimotxoaren bitartez kontatu gura du lanak eta, horretarako, arlo ezberdinetan (arkitektura, kazetaritza, musika etab.) esanguratsuak diren pertsonen kolaborazioa bilatu da. Besteak beste, Fermin Muguruzak, Roberto Mosok, Asier Perezek edota Eduardo Menak sinatuta dator. Hartara, gure nortasunaren eta ohituren analisi eta ikerketa da *Kalimotxoaren benetako historia*; izan ere, egileen arabera, ardoaren eta Coca-Colaren (nortasuna zeharo definituta duen marka) arteko nahasketak ordura arte indarrean zegoen euskal nortasunaren definizioa aldatu eta “euskal nortasun postmodernoari” hasiera eman zion. Liburua honezkero salgai dago liburu dendetan; 10 euro. m

## natura &gt; ailegatu zaizkigu enarak



Eguraldi onaren etorrera iragartzen dute enarak

**Dagoeneko** gure leihoen parean entzun ditzakegu enarak (*Hirundo rustica*) kantatzen, bere hegaldi dotoreaz gure zeruak zeharkatzen... Hori guztia, gainera, pozteko arrazoia izaten da beti, animalia horrek eguraldi onaren etorrera iragartzen du-eta gure artean. Elaia, Bizkaiko txoko askotan ezagutzen zaion bezala, munduko hegazti migratzaile ezagunenetakoa dugu; izan ere, egunak eta egunak eman ditzake herrialdeak eta kontinenteak zeharkatzen toki epel eta eguzkitsu baten bila. Horretarako, orientaziorako zentzu aparta dauka eta aurreko urtean egindako kabia aurkitzeko gai da. Beraz, ez da arraroa izaten, egunotan, hegazti horren kumeen deiak gure etxe zaharretako teilatuetan edo baserrietako kortetan entzutea, uda parte gure artean emateko toki horiek ditu-eta hegazti bidaiariak gogoko. m

saiaz getaria



HOTEL

Roke Deuna 25  
280808  
Getaria  
Gipuzkoa



...haria



...lehen garaiak...



...itsasa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143


### www.bizkaie.biz > goitik behera barrizturik



**Orain dala** lau urte jaio zan Bizkaie aldizkari elektronikoa. Hasikeran hamabostekaria zan, gero astekaria eta maiatzaren 10az geroztik aldizkari izateari itxi eta eten bako agerkaria da, hau da, barriak jaso ahala sareratzen dabez. Barrikuntza gehiago bere badakarz Bizkaie barriak. Esaterako hiru blogari fitxatu dabez: Xabier Paia, Iñaki Atxutegi eta Erramun Osa. Hau guztia eta beste makinatxu bat gauza: atal barriak, diseinu barria... Interneten, askotariko gaiak (alkarrizketak, zinea, musikea, informatikea, bertsolaritza...), bizkaiera hutsean jorratzen lehehengoak izan ziran Bizkaie-koak eta gaur egun bere bakarrak dira horretan. Mendebaldeko euskalkia gaur egungo teknologiaz sustatzea, bizkaiera idatzia normalizetan eta bateratzen laguntzea, irakurzaletasuna sustatzea, bizkaiera aisialdian gehiago erabilteko bidea zabaltzea... horreetek dira web honen helburuetako batzuk. Sartu Bizkaien, egizu harpidetza. Ez zara damutuko! m

Argazkian, Xabier Paia, Saioa Torre eta Koldo Isusi, Bizkaieko zuzendaria

### internet > .cat domeinuak milioi bat web ditu daborduko



**Kataluniako** hizkuntza eta kulturari .cat domeinuak Interneten emandako tokia izugarri handia da dagoeneko eta, abian jarri zenetik hiru hilabete besterik ez direnena igaro, milioi bat web eskuratu ditu. Horrez gain, 10.000 eskari jaso dira .cat domeinua erregistratzeko, joan den apirilaren 23tik gura duenak erregistra daiteke-eta eta prezioak baxuagoak dira. Hartara, Kataluniako ia alderdi guztiek, erakundeek, komunikabideek eta argitaletxeek .cat erabiltzen hasi dira, besteak beste, domeinu berriak katalaneko karaktereak onartzen dituelako: “ç”, “l” geminatua etab. Alabaina, .cat-ek ez du Kataluniako .ct-gaz zerikusirik, lehenbizikoa ez da-eta lurraldea adierazten duen ezaugarria. ISO 3166 dauden lurraldeek soilik eskura dezakete hizki biko domeinua eta, oraingoz, ez Euskal Herria ez Katalunia ez daude zerrendan horretan. Hala ere, noizko, behintzat, .eus domeinua? m

www.gencat.cat Generalitatearen webgunea



"Hiru urte eder izan dira, momentu onakaz eta txarrakaz, baina gehiago izan dira onak"

### Asier Basterretxea > Getxo Rugbyko entrenatzaile ohia

**Asier Basterretxea** dauka izena, baina askok abizenaren laburduragaz deitzen diote: Baste. Erromokoa da, 32 urte dauzka, eta ia bizitza osoa errugbiari lotuta emon du. Zortzi urte gaz hasi zen Getxo Rugby taldean, eta mailarik maila igo zen harik eta, ordurako lehenengo taldean zebilela, lesio larri batek jokatzea eragotzi zion arte, "23 edo 24 urte neuzkala". Kiroletik alden du gura ez eta entrenatzaile hasi zen. Hor ere mailarik maila: ikastaro batzuk hartu zituen lehenengo eta Espainiako entrenatzaile titulu nazionala lortu zuen gero. Bizkaiko hainbat taldetan jardun ostean, etxera itzuli zen, Getxora. Hiru urte bigarren taldea zuzentzen eta beste hiru lehenengoak, azken igoera lortu zenetik igaro diren hirurak hain zuzen. Ez hain aspaldiko garai loriatsuan besterik bazen ere, Getxo Rugbyren helburua apala da gaur egun: mailari eustea. "Hori lortu egin dugu", aldarrikatzen du Basterretxeak, "eta gainera saria eduki genuen iaz, Kopako finala jokatu genuen eta". Orain, egin beharrekoak eginda, erromotarrak -Mungiako Larramendi ikastolan egiten du lan, bide batez esateko- kargua uztea erabaki du: "Uste dut bete egin dudala neure zikloa. Hiru urte eder izan dira, momentu onakaz eta txarrakaz, baina gehiago izan dira onak. Bada momentua beste nonori atea irekita uzteko". Halan eta guzti ere, Basterretxeak ez dizkio errugbiari bereak itxiko. Bost urte daroaz Bizkaiko Federazioko zuzendari tekniko, eta ez du ardura hori utziko. Holan baretuko du barneko harra, eta ez da har makala. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!*

Ajuria  
taberna

Andrés Cortina 2  
**ALGORTA**

# Irailean hasiko dira lanak

**Kirol Portuan** lekutuko diren **bela eskolako eta arraunketarako eraikinak** altxatzeko Udalak **1.440.566 euroko aurrekontua** dauka eta **urte bat barru** erabiltzeko prest egongo ei dira

Luzaroan ados ipini ezinik ibili ostean, hamaika hartu-eman eta gero, azkenean ematen du hurrengo irailean hasiko direla **Kirol Portuko** bela eskolarako eraikina eta arraunketarako kirolegi berriak eraikitze lanak. **Bi pabilioiak 7.900 metro koadroko ingurunean altxatuko dituzte, eta horretarako 1.440.566 euroko aurrekontua dauka Udalak. Lanak irailean hasi eta datorren urteko maiatzerako amaituta egotea espero dute udal arduradunek.**

**Kirol Portuko** bela eskolarako eta arraunketarako pabilioiak eraikitze egitasmoak hainbeste urteko atzerapena eduki du El Abra Getxoko Kirol Portua elkarte publikoa (Udalarena eta Eusko Jaurlaritzarena) eta Getxo Kaia elkarte pribatua ez zirelako ados ipintzen. Getxoko alkate Iñaki Zarrakoa azaldu duenez, "Getxo Kaiari eman genion portuko instalazioak kudeatzeko eta ustiatzeko baimena, eta hark pabilio horiek egiteko konpromisoa hartu zuen; ez zuenez bere hitza bete, azkenean Udalak hartu du horiek eraikitze ardura, baina Getxo Kaiak edozein kanon ekonomiko eskuratzeari uko egin dio". Ondorioz, bela eskolaren kudeaketa lehiaketa publikoaren bitartez esleituko du Udalak eta arraunketa pabilioarena sortzear ei dagoen Getxo Arraun taldearen esku geldituko da.

Proiektua bela-estropadetan jardundako arkitekto Peru Mugikak eta Algorta Arraun taldeko arraunlari ohi eta aparejadore Julen Altunak osatu dute. Hala, Kirol eta Kultura



Eraikinek izango duten itxura

zinegotzi Guzman Aranagak adierazi moduan, "enikuntzek ez dute inguruan eragin estetikorik izango, ez dira kaia bera baino altuagoak, agian arraunketarena bai, 5 metro ingurukoa, traineruak gondetzeko apalak direla eta".

**«Sortzear dagoen Getxo Arraun taldeak kudeatuko du arraunketa kirolegia»**

#### Banan-banan

Arraunketa kirolegiak 938 metro koadro edukiko ditu: elkartearen gelak, masajerako aretoa, 3 aldagela, biltegia, traineruak uzteko apalategia, gimnasioa (209 metro koadro) eta bertan gutxienez 6 arraunlarik entseguak egiteko 135 metro koadroko ur-hobia paratuko dute.

Bestalde, bela eskolako eraikinak guztira 945 metro koadro edukiko ditu, horietatik 429

metro koadro barru aldekoak dira, eta gainontzekoak kanpo aldekoak, belaontziak mastak kendu barik gordetzeko. Barruan eskolako gela eta aretoez gain, aldagelak, lantegia, ontzi pneumatikoa gordetzeko txokoa eta arropak arin sikitze gune berezia lekutuko dituzte. Aranagak azaldu legez, bela arineko eskola ei da, "nagusientzako aukera ere eskain dezake eta haurrek eskolak merkeago hartzeko Aldundiagaz hitzarmenak egiteko aukera egon daiteke". m

#### Datu batzuk

- Irailean hasiko dira lanak.
- 2007ko maiatzean amaituta egongo ei da.
- 938 metro koadroko arraunketa pabilioiak.
- 945 metro koadroko (kanpo eta barru) bela eskolarako instalazioak.
- Pantalana egingo dute lanok amaitu ostean.

**Portu Zaharrerrainoko** bidea zabaltzeko **lanak 1,5 milioitan** agindu dituzte



13,5 metroko zabalera edukiko du bideak lanen ostean

**Getxoko Udalak** Ereagako pasealekuan (La Olatik Portu Zaharrerraino doan ibilbidea) egingo diren urbanizazio lanak esleitu edota agindu ditu dagoeneko. Egiteko horretara 2.090.000 euro inguru bideratuko ditu, 1,5 milioi euro bidea eta espaloiak zabaltzeko eta gainontzeko 600.000 euroak saneamendua eta ur sarea beriztatze erabiliko ditu. Heritarren ahotan eztabaidagai izan den egitasmoa aurrera doa beraz, eta udal arduradunek adierazi duteenez lanek 9 hilabeteko epea daukate, horrenbestez, datorren urteko apirilera amaituta egotea espero dute. Itsasoari 4 metro ostuko dizkiote 305 metroko luzera daukan bidea za-

baltzeko, hau da, 4 metro itsaso barrura horma eraikiko dute. Hala, 13,5 metroko zabalera daukan bidea geldituko da: bi noranzko 5 m-ko errepidea, 2,5 m-ko bidegorria eta 6 m-ko espaloia. Portu Zaharrean plataforma bat egingo dute bidea espaloien mailari berdintzeko; eta bertako aparkalekuak desagerraraziko dituzte, horrela hostalarietarako terrazatxoak ipintzeko aukera emango diete. Horrez, gain, Igogailuko eta La Olako jatetxe inguruan bidegorria erdi aldera ekarriko dute. Amaitzeko, Getxoko PPK lanok orain dela 2 urte agindu behar zituztela esan du eta ondorioz aurrekontuak igotera nabarmena jasango duela. Alkatetzak hori gezurra dela esan du. m

#### AREETA ETA ALDAPA LOTUKO DITUEN BIDEA ERAIKIKO DUTE GOBELA IBAIAN

Gobela ibaiaren ertzean, Areetatik Aldapa auzoraino joango den pasealekua eraikiko dute. Bidean zehar arbolak landatu eta lorategiak jarriko dituzte; baita eserlekuak eta beharrezkoak diren bestelako azpiegiturak ere. Ibilbidea Aldapan eraikiko den ur parkean amaituko da. Egunero inguruetan paseatzen den jendearentzat atsegina izateaz gain, Areetan eta Erromon gertatzen diren uholdeak amaitzea da lanen helburu nagusia.

#### IKASTETXEEK ZAINTZA PRIBATUKO ZERBITZUA IZANGO DUTE

Asteburuetan batez ere, zaintza pribatuko zerbitzua izango dute Erromoko herri ikastetxeak eta Geroa ikastolak. Horrela, bariku eta zapatu gauean sor daitezkeen arazoak amaitu gura du Udalak. Horrez gain, beste ikastetxeetan antzeko egoerak sortuko balira, zaintza toki horietara ere eramango lukete.

#### GAZTEEN ELKARTEENTZAKO DIRU-LAGUNTZA

Gazteentzako ekitaldiak antolatzen dituzten 15 elkarteek 28.000 euroko diru-laguntza jasoko dute, Udal Gazteri Zerbitzuak 2006 urterako egindako deialdian aurkeztutako egitasmoengatik. Talde horien jarduerak Getxoko haur, nerabe eta gazteen %9engana heltzen dira.

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

[www.seminuevosengetxo.com](http://www.seminuevosengetxo.com)

**BILBO BERRI**  
Bizkerre, s/n - ALGORTA. Tel. 94 430 68 81

# Euskara

merkataritza arloan suspertzeko asmoagaz beste pauso bat

**GEHI** Euskara Merkataritzara egitasmoak aurrera jarraitzen du eta laster eskuratuko dituzte getxoztarrek merkataritza arloan euskararen erabilera bultzatzeko eskuorri berriak. Udaleko Euskara Zerbitzuak udalerriko merkataritza sektorean euskarak daukan egoeraren gaineko azterketa egin zuen, eta ondorio nagusi hau ateratu dute: Getxoko merkataritza gero eta prestatuago daudela euskarazko zerbitzua eskaintzeko. Halere, batutako datuek ere zera islatzen dute: 10 dendetatik 3tan euskaraz egiteko aukera dago, eta 1ean saltokiko guztiak eskainiko dute arreta euskaraz; 10etik 1ek baino ez du errotulua euskaraz; merkatarien %60k uste dute dendan euskara sustatzea onuragarria dela; azkenik, 469 saltokik sinatu dute Udalgaz hitzarmena... Era berean, eskuorrian Udaleko Euskara Zerbitzuak zein Hizkuntza aholkularitzak eskaintzen dituzten zerbitzuak, diru-laguntzak... azaltzen dituzte. Hala, eskuorriak bi hartzaile mota dauzka: merkataritza eurak, (euskarazko zerbitzua eskaintzera animatzeko eta egindako ahalegina eskertzeko), eta erabiltzaileok (euskaraz egiteko aukera gure esku ere badagoelako). m

**Gotzon Onandia** > Gurutze Gorriko kooperantea

“Aceheko jende hura aske ikusteak, horrek adierazten dizu denak merezi izan duela”



Gotzon Onandia

**Zuzenbidea, Nazioarteko Harremanak eta Giza Eskubideak ikasi ditu 35 urteko Gotzon Onandia algortarrak. Abokatu lana utzi zuen eta urte batzuk geroago Gurutze Gorriko Komite Internazionalakaz beharrean ibili da, Acehen (Indonesia) 2 urtez eta Kinkalan (Kongoko Errepublika) urtebetez.**

—Bahiketa baten bitartekari izan zinen?

—Acehen gerrilla eta gobernuaren arteko gatazkan nembilen lanean, Genevako Itunen begiraleak ginen: “gudako legeak” azaldu eta betetzen ziren zaindu, atxilotuak bisitatu, senitartekoen kontaktuak mantendu, barne desplazatu kanpamenduetara baliabideak eroan... Gurutze Gorriko Komite Internazionala erakunde neutroa da, eta bitartekari bezala laguntzea eskatu ziguten bahiketa batean. Kazetari bi bahitu zituzten, bata tiroketa batean hil zen, bestea askatu nahi zuten eta horretarako bitartekari izan ginen. Sueten antzeko bat lortu zuten: eguneko gerrillagaz hitz egitera mendira joaten ginen eta gaur hirira militarrekaz eta beste autoritateakaz jarduteko. 3 egun ondoren lortu genuen

kazetaria eta bahitutako beste 150 lagun ere askatzea.

—Zer sentitu zenuen bien erdian egonda?

—Erantzukizun oso handia, badakizulako beraien geroa zure jokararen arabera dela, zure esku egon daiteke pertsona horiek aske izatea ala ez. Ez zen batere erraza izan, mesfiantza izugarria zegoelako, baina aukera bat bazegoela ikusi nuen; pauso txiki-txikiak emanek konfiantza nahikoa sortu genuen prozesua aurrera eramateko eta askatu egin zituzten, benetan ederri izan zen, eta horrek adierazten du pasatako denak merezi izan duela.

—Eta Kongoko esperientzia zelakoa izan da?

—Mundu oso desberdina da. Batez ere osasun, ur eta nekazaritza proiektuetan jardun dugu. Azken gutatik irten berriak ziren, dena txikituta zegoen, pobrezia itzela... Acehen tsunamiaren hondamenaren ostean zera pentsatu nuen: zergatik utzi behar dut Aceh

**«Zeozter egitea ezer ez egitea baino askoz hobea da»**

Kongora joateko? Kongora heltzean konturatu nintzen Acehen bezain txarto edo txarrago zaudela, guztiz ahaztuta gainera. Gutxienez tsunamiagatik herri haien egoera nazioartean ezagutu da, jendeak laguntza eman du; oster, Afrikan badaude hainbeste leku egoera tamalgarran, munduak guztiz ahaztu dituenak.

—Zer duzu luxuzko gizartekoei esateko?

—Jendeak orokorrean ez du gogo handirik munduan zer gertatzen den jakiteko, indiferentzia dago; ez du interesik ere luxuzko gizarte honetan egoera larriaren dauden pertsonen egoera ezagutzeko. Arazo asko konpon litezke munduan ekintza sinpleakaz; nahiz eta arazoak konplexuak izan. Zeozter egitea ezer ez egitea baino askoz hobea da, noski; baina ez dago benetako borondaterik egoera aldatzeko eta hori denek lepora diezaiekegu: herri txiroetako gobernuak, nazioarteko erakundeak, herri aberatsetako gizarteak... Gizarteak kontzientzia hartzea da bidea. m

# Eskuak lanabes

Getxoko **XXIII. Eskulangintza azokak**

**113 artisau** batuko ditu hileko azken asteburuan



Eskulangintza azokarako sarrerak 2,50 euro balio du

**Maiatzaren 26tik 28ra** bitartean (11:00-14:30 eta 17:00-21:00) XXIII. Eskulangintza azoka prestatuko dute Areetako Geltoki plazan paratu duten 2.500 metro koadroko karpapean eta alboan dagoen Ibaiondo kalean zehar. 113 eskulangileen lanak ikusteko, dastatzeko eta erosteko aukera egongo da. Izan ere, horietatik 14 bat gastronomia alorari dagozkio eta hauek izango dira Ibaiondo kalean euren jakiak eskainiko dituztenak. Kultur Etxeko azokako arduradun Iñaki Garatek azaldu legez, “*karpan 100 bat erakusmahai ipiniko dira, ez dago leku gehiago, eta urtero eskaera gehiago jasotzen ditugu, aurtengo 200 artisauen eskariak izan ditugu*”.

Argentina, Portugal, Frantzia, Italia, Irlanda, Espainia... eta beste lekutatik etorriko dira artisauak Getxora eta euskaldunen artean Nafarroa

Beharrik, Lapurditik, Arabatik (2 artisau), Gipuzkoatik (5), Nafarroa Garaitik (6) helduko dira, eta zelan ez, bizkaitarrak ezin falta: Getxo, Urduliz, Leioa, Erandio, Portugalete, Bilbo, Ugao, etab. ordezkatuta egongo dira. Zeramika, egurra, beira, argizari, paper zein larruzko lanak, bitxigintzako eta ehungintzako ekoizpenak, abanikoak, erlojuak, panpinak... egongo dira ikusgai eta salgai. Horrez gainera, karparen kanpoaldean artisau ogibideari gorazarre egiteko asmotan, otarrigintza, forjaketa artistikoa eta tradiziozko zizelkatze lanen erakustaldia prestatu dute. Bestalde, Ibaiondo kalean Trapaga, Mendata, Larrabetzu, Orozko, Amurio, Eibar, Audio edota Tafallako garrapiñatuak, ogiak, gaztaiak, euskal pastelak, ahatekiak, txokolata... dastatzeko eta erosteko aukera egongo da. m

**ELKARTEETAN EZ DAUDEN GAZTEEK BULTZATUTAKO PROIEKTUENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK**

Getxoko gazteek udalerriko eskaintza kulturala eta sozialean era aktiboan parte har dezaten *Wanted* diru-laguntzarako deialdia zabaldu du Udal Gazteria Zerbitzuak. Elkarteetan ez dauden gazteek bultzatutako proiektuetara zuzenduta dago laguntza: hitzaldiak, erakusketak, ikus-entzunezko proiektuak, performanceak, antzezlanak, film-laburrak etab. Getxon bizi diren 30 urte beharokoek eman ahal izango dute izena eta gutxienez lau lagunek osatutako taldeak izan behar dute.

Informazio gehiago: 944 660 018

**MINTEGI IREKIAK ANTOLATU DITU NAZIO GARAPENERAKO BILTZARRAK**

Maiatzaren 17tik 31ra arte Nazio Garapenerako Biltzarra hainbat herritan izango da Mintegi Irekiak antolatzen. Hain zuzen ere, maiatzaren 31n, 19:30ean, Algortako kultur etxean egingo da bat. Topalekuaren helburuak, besteak beste, Nazio Garapenerako Biltzarrak eta Nazio Ertabidaguneak egindako behararen berri ematea, Euskal Herriak nazio gisa aurrera egiteko konpromisoak zeintzuk diren zehaztea eta herritarrekin harremana sendotzea izango dira.

**KIROLDEGIEN UDAKO IKASTAROEN ESKAINTZA**

Getxo Kirolak erakundeak 754 toki eskainiko ditu udako kirol ikastaroetan parte hartzeko. Faturako ikastaroak uztailaren eta abuztuaren izango dira: igeriketa, tenisa, padela, abentura, gran slam etab. Gobelako kiroldegian, aldiz, ikastaroak uztailaren soilik izango dira eta, Faturan aipatutako ekintzez gain, 10 urtetik gorako umeentzako Futboleko Kanpusa eskainiko du. Izena emateko, maiatzaren 16tik ekainaren 12ra.

**DIDAK**  
**hamilton**  
**IDIOMAS**

**Ingelesa, Frantsesa eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
didakhamilton@euskalnet.net

**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor-
- ma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

**IRATI**  
moda gaztea opariak

Torreña 2, ALGORTA  
T. : 94 491 12 71



## Leioako Umore azoka

Antzerkia, musika, zirkua eta ikuskizuna Kale Artisten Leioako Umore azokan **ekainaren 1, 2, 3 eta 4an**

**Zanguango**, Samarkanda, Azul Killas, La Tirili, Voltaires, Kadun Karama, Clownx, Gaitzerdi, Karoli, Nanny Cogorno... zertaz ari gara? Kukubiltxo aipatzen badugu agian zer edo zer susma dezakegu. Umore azokaz berba egiten badugu, orduan bai, dena argi dago. Ekainaren 1etik 4ra bitartean Leioan egingo duten Umore azokan

**«7. edizio honetan  
130 ikuskizun baino gehiago  
ikusitako ahal izango dira  
herrian zehar»**

parte hartuko duten konpainiez ari gara. Egun horietan talde hauek –eta beste askok– umore, amets, parte-hartze, joko eta gozamenaz zipriztinduko dute herria. Urtero bezala garai honetan Leioako kale eta plazak eszenatoki ibiltari bihurtzen dira zirku, musika, antzerki eta beste hainbat motarako ikuskizunak jasotzeko. Kale Artisten Leioako Umore azokaren 7. edizioan 130 ikuskizun baino gehiago ikusi ahalko dira herrian zehar atondutako bat-bateko eszenatokitik (Euskal Etxeen plaza, Errekalde plaza, Jose Ramon Aketxe, Sabino Arana, Boulevarra, Barandiaran Institutua, Auditoriuma, Ikea Barri plaza).

Urtez urte garrantzia irabazten doa Umore azoka ikusle, antzezle, zein programatzaileak erakarriz. Alberto Garcia Umore azokako antolatzailearen esanetan mu-



Peruko Los Grumildos taldearen txobxongiloak (argazkian) Leioan egongo dira

gak gaintzen dituen ikuskizuna da. *“Esango nuke Umore azoka erreferentzia puntu bilakatu dela Estatu mailan, baita europar antzerkigintzan ere”*. Parte hartuko duten konpainiak, esate baterako, jatorri anitzekoak dira. Besteak beste, Frantziatik, Holandatik, Britainia Handitik, Argentinatik eta Espainiatik datozen taldeek jardungo dute Euskal Herriko taldeekin batera. Euskararen presentzia ere ziurratuta dago. *“Hitza agertzen duten euskal taldeen*

*ikuskizun gehienek euskara erabiltzen dute”*.

## Zazpigarren edizioa

2000. urtean Kale Artisten Leioako Umore azoka ipini zen abian. Aurretik, 1996an, Umore azoka jaio zen, baina hau ez zen kalean egiten. Orduan, antolaketaz arduratzen den Udaleko Kultur Sailak, lortutako arrakasta ikusita ikuskizuna kaleratzeko erabakia hartu zuen. Orduetik urratsez urrats hobetzen joan da gaur egungo maila eskuratu arte. m

## Lamiakoko Maskarada

Maiatzaren 26an euskal pertsonaia mitologikoak bilduko dira suaren argipean Lamiako auzoan



22:30ean, eliza ondoko plazan, suaren inguruan akelarre ikusgarria dantzatzeko dute pertsonaia guztiek

**Mari** eserita dago eta Sugarrek ilea orrazten dio. Adarrak hirugarren aldiz jotzen duenean... Urtero bezala, maiatzaren azken barikuan Aker, Su, Galtzagorri, Ieltxu, Gau, Inguma, Sorgin, Ilazki, Oniztari, Basajaun, eta beste pertsonaia asko Lamiako auzora hurbiltzen dira herriaren iraganaren bizimodua eta sinismenak oroitzeko. Jon Goldaraz Lamiako Maskarada taldeko arduradunak auzokideentzat duen garrantzia aipatu digu. *“Besteengandik ezberdintzen gaituen zerbait daukagu, eta hori antzesten dugu herriaren aurrean: oso harro gaude Maskaradarekin”*. Aurten 27 urte beteko ditu Lamiako Maskaradak, eta oraindik orain, oso ezaguna ez bada ere, urtez urte ikusle gehiago erakartzen ditu.

Maiatzaren 26an ospatuko den Maskarada hiru ataletan banatzen da. Aurrena, Gaztelubide kaleko errotondatik abiatuko da 17:30ean. Maiatzaren etorrera iragartzeko kalejiran ibiliko dira erraldoiak, fanfarrea eta herriko dantza taldea. Bigarren atalari 18:00etan ekingo zaio Lamiaren eskultura parean. Bertan, Marik eta bere senarrak –Sugarrek– Udagorri dantzatzeko dute lehenik, gero, herrian zehar gainontzeko pertsonaia mitologikoekin biltzeko. Azken atala eta ikusgarriena, 22:30ean eliza ondoko plazan: suaren inguruan akelarre ikusgarria dantzatzeko dute pertsonaia guztiek. Antzeppen zirrargarri honetan jentil mitologiaren eta kristautasunaren arteko borroka irudikatzen da. m

## SEMAFOROAK ETA OINEZKOENTZAKO BIDEAK AVANZADAN

Gidari batzuek Leioa zeharkatzean daramaten abidura ikusita, Avanzada alboko bideetan hobekuntzak egitea erabaki du udalbatzak eta, oinezkoentzako pasabideak hobetzeaz gain, toki batzuetan argiztapen gehiago jartzea erabaki du. Hartara, semaforo eta oinezkoentzako pasabide berriak jarriko dituzte, ibilgailuek oinezkoak errespetatu dituzten. Bestalde, zarata izaten da Leioako bizilagunentzako arazorik larrienetarikoa; izan ere, herria zeharkatzen duten tunelek irekidurak dituzte zati batzuetan. Arazoari irtenbide bat bilatuko ziola agindu zuen orain dela urte batzuk Aldundiak, baina ezin izan zuen agindutakoa bete Europako araudia aldatu zelako.

## UDA 2006, LEHEN URRATSAK

Urtero bezala uztailaren 6 eta 13 urte bitarteko leioaztar gaztetxoek UDA kanpaina murgiltzeko aukera dute. Bertan kirolتان eta jolasetan jardungo dute adinaren arabera antolatutako taldeetan. Jarduerak uztailaren 3tik 28ra izango dira 10:00etatik 14:00etara, herriko instalazioetan zein beste udalerrietara egindako txangoetan. Izena emateko epea bukatuta, plazan zozketa (400 umerentzako lekua dago) maiatzaren 23an burutuko da goizeko 11:00etan Sakoneta kiroldegian. Argibide gehiago Sakonetan bertan (94 400 80 59).

## MARGOLARI GAZTEAK

Maiatzaren 14an Margolari Gazteen IX. Sariketa egin zuten Kultur Leioan. Egun horretan margolariak, 16 eta 35 urte bitartekoak, herriko puntu bat aukeratu eta bertan margotu zuten lehiaketara aurkeztu zuten oihala. Irudikatu beharrekoak Leioa eta bere ingurunearekin zerikusia izan behar zuen. Orain lan horiek guztiak Kultur Leioan erakutsiko dira ekainaren 25era arte. Erakusketa Aretoan astelehenetik ostiralera (10:00-20:00), larunbatean (17:00-20:00) eta ingandean (11:00 -14:00)

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
IMPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

udondo  
taberna  
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

## [erandio]

## Axpuru kultur elkarte

Euskararen eta **euskal kulturaren mesedetan** behar egingo duen kolore guztietako taldea

**Axpuru** izeneko kultur elkarte jaio berri da Astrabuduan eta joan den maiatzaren 6an egindako aurkezpen ekitaldien barnean postontzia jarri zuten izen bereko mendian, parte hartu gura duen orok bere iradokizunak utz ditzan. Momentu honetan, sei pertsona da biltza elkartearen ekintzak antolatzen. *“Alabaina, jende gehiagok parte hartzea nahiko ge-*

**«Gurea ez da euskara elkarte. Guk euskararen eta euskal kulturaren alde egin gura dugu»**

*nuke. Abian jartzen ditugun ekimenak irekiak dira eta kolore guztietako jendearengana heltzeko ahalegina egingo dugu»,* azpimarratzen du Jorge Martin elkartearen kideetako batek. Horretarako, kartelen bidez iragarriko dituzte ekintzak eta irailean, taldearen jardueraren egonkortzen denean, bazkide berriak hartzeko asmoa daukate.

Halere, elkarte orain ofizialdu duten arren, dagoeneko urte bi daroaz euskal selekzioen jaia antolatzen. *“Aurten hirugarren edizioa izango da. Jai hori, agian, taldea sortzeko abiapuntua izan da eta, gainera, jende pilo batek lagundu digu”.*

Axpuru elkartearen helburua, beraz, euskal kulturaren eta euskararen alde egitea da. Alabaina, euskara elkarte ez dela argi utzi gura dute. *“Guk ez dugu mota horretako elkarte bat sortu gura izan, izan ere, Erandion bada-*



Elkarteko kide batzuk Axpuru mendia tontorrean

*go bat. Iraganen herrian egiten ziren ekintzak berreskuratzen gura ditugu: baselizen arteko ibilaldia, nekazal azoka...”. Halaber, ekimen berriak abian jartzeko lan egingo dute. “Aurtengo gabonetan, adibidez, Olentzero Kantuketan antolatzen gurea, sagardotegira joan gara eta urtero erromeria egin nahiko genuke hemen ondoan dagoen Axpuru mendian”, nabarmentzen du Jorgek. Gainera, herriko beste elkarte batzuk elkarlanean jardutea ezinbestekoa dela uste dute eta, besteak beste,*

berbalagun proiektuan parte hartzea erabaki dute. *“Hemen erdaldu asko dago; hori dela eta, euskaraz dakienak euskara erabiltzea lortu gura dugu. Gainera, proiektua ona izan daiteke jende ezberdina batzeko”.*

Taldea osatzen duten lagunak Erandioko euskal munduko hainbat taldeetako partaideak dira eta, oraingoz, tabernetan elkartzeko dira; hala eta guztiz ere, urteek aurrera egin ahala eta proiektuak emaitza positiboak izanez gero, egoitza bat lortzea espero dute. m

## Los Charros Kluba

1986 urtea ezkerotik **calva jokoan** jarduten du Astrabuduko bizilagun talde batek sortutako elkarteak



Taldekideak maiatzaren 7an egin zen txapelketa eta gero

**Gaztela eta Leongo** jokoa da *calva* jatorriz, baina aspalditik ekarri zuten Euskal Herrira bertatik etorritako beharginek eta gaur egun, batez ere, Bizkaian jokatzen da. Urteak aurrera joan ahala, elkarte batzuk sortu zituzten kirolaren inguruan, tartean, Erandioko Los Charros Kluba.

Elkarte 1986an eratu zuten eta, orduan, 27 bazkide ziren; gaur egun, ordea, 14 besterik ez dira eta gure artean galtzeko arriskuan dago jokoa. *“Garai batean 37 izan ginen eta gazteak ere izan genituen, baina orain beste gauza batzuk nahiago dituzte eta horrela jarraituz gero, hemen behintzat, desagertu egingo da”,* dio etsita Raimundo Gonzalez klubeko presidentek. Bitartean, eurek *calva* jokatzen jarraitzen

dute zapatu eta domekatan. *“Kirola egiteaz gain, lagunaren artean hitz egiten dugu, calva beste pertsonakaz harremanetan jartzeko bitartekaria besterik ez da-eta”.*

Halaber, txapelketetan parte hartzen du Los Charros elkarteak. Taldearen egindako Bizkaiko txapelketan garaile irroteaz gain, joan den maiatzaren 7an Erandion egindako banakako txapelketako antolatzailea izan zen.

Antzinako artzainen kirola zen *calva* eta behi baten adar bati harri bat botatzeko jokatzen zen. Urteen poderioz, jokoa eraldatuz joan da eta adarraren ordezkari oholezko pieza bat (*calva*) erabiltzen hasi ziren eta harriaren ordezkari, burdinezko edo altzairuzko zilindro bat (*marro*). m

## 80.000 METRO KOADROKO INDUSTRIALDEA ERAIKIKO DUTE ASUAN

Asuan enpresa parke bat eraikitzeko 21 milioi euro inbertituko ditu Inbisa Talde Inmobiliarioak. Industrialdeak 80.000 metro koadro izango ditu eta kutsatzen ez duten enpresek soilik izango dute han ezartzeko aukera. Horietatik 14.569 metro koadro Inbisarentzat izango dira, hiru eraikinetan banatutako 57 industria guneakaz. Eraikuntza lanak oso aurreratu daude eta dagoeneko bideak, lorategiak, aparkalekuak eta kanalizazioak amaituta ditu. Hori guztia egin baino lehen, ordea, zonaldeak hainbeste urtean jasandako kutsaduraren ondorioak ezabatatzeko prozesua martxan jarri zuten.

## GAZTEENTZAKO EKINTZAK ANTOLATU DITU BERBOTSEK

12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoentzat hainbat ekintza antolatu ditu Bordatxu Gazte Txokoak (Berbots Erandio Euskaraz elkarteak). Aisialdiaz euskaraz gozatzeko egitarau zabala prestatu dute elkartearen lokalean burutuko diren tailer ezberdinak: tatuajeak, taloa, risoterapia, karpetak... Halaber, Gorlizko Trokoara txango bat antolatuko dute. Informazio gehiago, Euskara Zerbitzuan edo Kultur Etxean.

## 497 ETXEBIZITZA ERAIKIKO DITUZTE GOIKOAN

Erandio Goikoan eraikiko dituzten 497 etxebizitzetatik 300 baino gehiago babes ofizialekoak izango dira. Lanak hiru urte barru hasiko dira eta, etxeraino, kirola eta ekintza kulturalak aurrera eramateko instalazioak, 28.000 metro koadroko parkea, 2.500 metro koadroko merkataritza gunea eta pilotaleku publiko bat eraikiko dituzte. Proiektua aurrera eramateko, gehienez, 600.000 euro inbertituko dituzte.

**Arasa**  
Sukalde eta Komunitararako Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen zaharberriak eta dekorazioa

Sarikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91

**Basolanak**  
• Zuhaitzen landaketa  
• Podak  
• Itxierak  
• Garbiketak  
• Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa  
**DEITU!**

T. 94 467 17 13  
F. 94 467 42 41  
ERANDIO (Bizkaia)  
Mobila  
Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

**ARLAN**

Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)  
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz

## TAO INDARREAN DAGO DAGOENEO SOPELAKO HONDARTZETAN

Arrietara, Atxabiribil eta Barinatxe hondartzetako zonalde horian autoa uzten dutenek 0,30 zentimo ordaindu beharko dute ordu erdi baterako. 5 euro ordainduz gero, autoa egun osoan uzteko aukera izango dute. Horrez gain, udarako 40 aparkaleku gehiago egongo dira Atxabiribil. Bestalde, egun batzuk barru, Landabe kalera aldatuko dute TAOren arreta bulegoa (orain Los Angeles auzoan dago). Orain arte, 1.500 txartel banatu ditu Udalak (gutxi gorabehera, 6.000 ibilgailu daude eroldaturik udalerrian).

## EKAINAREN 4RAKO IBILALDIA ANTOLATU DU URKO MENDI TALDEAK

Ekainaren 4rako ibilaldi neurtua antolatu du Urko mendi taldeak. Nagusientzako 19 kilometroko ibilbidea prestatu du taldeak Sopelako inguruetan zehar. Irteera 8:30ean izango da, Batzokian, eta gura duenak bertan eman ahal izango du izena. 10:30ean, berriz, umeen txanda izango da eta horientzat ibilbide egokitu bat prestatu dute. Ibilaldiaren ondoren hamaiketako eskainiko dute udaletxearen plazan. Bestalde, ekainaren 3an, zapatua, Urko mendi taldeko kideek txokolatada bat eskainiko diete umeei udaletzeko plazan, 19:30ean.

## 24 ORDUKO IGERIKETA SOLIDARIOA

MUSEk (Moreagako Ugerzaleak Igeri Kirol Elkarte), Sopelako Igeriketa Taldeak eta Sahararen alde lan egiten duen Nuyum elkarteak, Sopelako Udalaren babesagaz, 24 orduko igeriketa maratoia antolatu dute maiatzaren 20rako, udal igerilekuan, dirulaguntzak batzeko asmoz. Modu bi egongo dira diru eskaintzak egiteko: egiten diren kilometroen arabera edo ekintza burutu aurretik diru kopuru finkoa eskainiz. Gura duenak izena eman dezake kiroldegian.

## Zirkulazioaren azterketa

Sopelako Udalak **ikerketa egingo du** Uribe Kostako korridoreko lanak amaitzen dituztenean



Korridoreko lanak Larrabasterran

**Sopelako Ezker Batua Berdeak** alderdiak udalerriko zirkulazioaren gaineko ikerketa "serioa" egitea eskatu dio Udalari, besteak beste, Jauregizar plazan egiteko asmoa duten lurrzapiko aparkalekuak eraiki baino lehen. EBren iritziz, "Sopelan aparkatzeko arazoa ez da konponduko TAO bezalako neurriakaz, edota bakarrik enpresa enaiki-tzaile zein sustatzaileen onurarako diren obra handiakaz. Benetako ikerketa egin dezatela, konponbiderako aukeren artean kaleetako norantzak aldatzea proposa dezakeena, horrela aparkatzeko leku gehiago lor daitezke; edo promozio urbanistikoko berrietan lurrazpi-

ko zein gaineko aparkalekuak proposatzea, edota udalerriko leku estrategikoetan aparkaleku inautornak ipin ditzatela".

Horren harira, Udal Gobernuaren erantzuna da ikerketa egin egingo dutela, baina Mimenaga eta Sopela lotzen dituen errepide zatiaren (Uribe Kostako korridea) lanak amaitzen dituztenean. Udaletik diotenez, azterketa orain egitea ez litzateke erabilgarria izango, korridoreak hainbat herri-errepideen eta kaleen zirkulazioa aldatuko duelako. Horregatik gelditu dute bidegorriaren egitasmoa ere, korridoreak erangindako aldaketak zeintzuk diren jakin arte. m

## Sopelako hondartzen zaldun zaindariak

Arrietara, Atxabiribil eta Barinatxe babesteko asmoagaz Surf Mahaia osatu dute



Surf Mahaia osatzen duten lagunak batzar batean

**Ezaguna da** Arturo erregearen istorioa, Camelot, Mahai Biribileko zaldunak, Grial Santuaren bilaketa eta babes... Bada jar ezazue Cameloten lekuan Sopela, Mahai Biribilaren inguruan olatuetako zaldunak edo surfariak zein bodyboardlariak, eta Grial balira legez Arrietara, Atxabiribil eta Barinatxe; eta Erdi Aroko istorio justiziakoa XXI. mendera ekarria.

Bada, 2006ak bidetari ekiten zion lehenengo egunetan ohol gaineko itsasoko zaldunak Surf Mahaia inguruan bildu ziren Sopelan, herriko harribitxiak diren hondartzak zaintzeko, babesteko neurriak adosteko asmoagaz. Orduetik, apurka-apurka hainbat olatu handi gainditu dituzte.

Mahaia ingurura deituak izan dira hurrengo taldeetako ordezkariak: Sopelako Udala, Euskal Herriko Surf Federazioa (EHSF), Larrabasterrako Surf Eskola, Euskal Bodyboard Eskola (EBE), Sopelbike multibentura elkarte, Barrika Surf Eskola, La Salvaje Surf Eskola eta Peñatxuri. Historiako lehenengo aroan edo fasean daude oraindik. Hala, Sopelako hondartzetan dabilzan ohol

gainekoen (surfari, bodyboardlari...) eta kirol horren egoera zelanbait finkatzea edo formal-tzea dute helburu, neurri edo "arau" batzuk zehaztea erabiliztaile guztien onerako: edozeinek Sopelako hondartzetan baimen barik surf eskolak eman ez ditzan, bainua hartzera doazenen eta surfarien artean bizikidetzatza hobetzeko, elkarrekin euren jarduerak aurrera eramala

### «Uda honetan hondartzetan balizak ipiniko dituzte»

teko baliabideak eta beharrak zeintzuk diren aztertu eta eskuragarri jarri, hareatzetako segurtasuna zein garbiketa zelan hobetu ikertu... Dagoeneko Surf Mahaia hartu ditu hainbat neurri edo erabaki, barbarako: uda honetan hondartzak balizatuko dituzte, ohol gainekoen eta bainua hartzera doazenen arteko ikamidak saihesteko asmotan.

Horrela, historiari aurrera egingo du, Mahaikideek beharrez jarraituko dute, gero etorriko dira guztion ongizaterako eta Sopelako harribitxiak zaindu eta babesteko beste "lege" batzuk. m

## 4 bide pinturak



RIPOLIN  
BONDEX  
DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

## 01 SOPELNET S.L.

Jokoak sarean •  
Txapelketak • Internet •  
Txat • E-mail • Lanak •

ordenagailuen salmenta  
zerbitzu tekniko  
kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA  
e-mail: 01sopelnet@terra.es  
www.geocities.com/sopelnet

☎ 94 676 00 62 - Fax:94



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana  
Tfnoa.: 946760266 - Email: sopela@ikastola.net



Loteria  
Sopela

Iparragirre 6, Sopela



Bentatu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94.6760328

VIII. KULTUR JARDUNALDIAK

Berangoko kultur etxeak eta herriko hainbat elkartetan VIII. Kultur Jardunaldiak antolatuta dituzte maiatzerako eta ekainerako. Hilaren 21ean, esate baterako, egun osoan zehar haur parkea jarriko dute Eskolan (11:00-14:00 eta 17:00-19:00) eta iluntzean nagusiek Los Cinco Bilbainos taldeagaz gozatzeko aukera izango dute. Maiatzaren 22tik 27ra, berriz, eskolaz kanpoko jardueren, fosilen eta mineralen inguruko erakusketa egongo da Berangoeta kultur etxean. Ekainaren 3an, Oskorrik eta Kukubiltxok emanaldia eskainiko dute frontoian (19:30) eta maiatzaren 29tik ekainaren 4ra arte Aste Berdea antolatu dute umeentzako hainbat ekitaldirekin.

VIII. EUSKAL PASTELA LEHIAKETA

Joan den maiatzaren 7an, Euskadiko VIII. Euskal Pastela Lehiaketa antolatu zuten Simon Otxandategi dantza taldeko kideek. Irabazlea Laudioko Jon Ugarriza izan zen eta Berriatuako Labegurrek eta Orozkoko Mari Aldaik eskuratu zuten bigarren eta hirugarren postua hurrenez hurren. Txapelketa Berangoko XIII. Nekazal azokaren barnean izan zen, hura ere dantza taldeak antolatuta.



Berango eta Larrabasterra batuko ditu oinezkoen ibilbide eta pasagune batek



BI-634 errepide zaharra

Berango eta Larrabasterra lotuko dituen oinezkoen ibilbidea eta pasagunea egiteko 795.652 euro bideratuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiak. Lanak egiteko ardura Enrique Otaduy-Viconsa enpresa-taldearen esku utzi du foru erakundeak.

Uribe Kostako korridorearen Mimenaga-Sopela arteko errepidearen osagarri moduan aurkeztu dute oinezkoentzako bide hori, horrenbestez, errepidearen lanak amaitzeagaz batera ibilbidearenak ere bukatuta egotea espero dute, abuzturako edo irailerako.

Ibilbideak Berango eta Sopela batzen zituen BI-634 errepide ohiaren tartea berreskuratzea du helburu. Bitarte horretan zegoen

zubiaren ordez pasabide bat altxatuko dute metroaren bidearen gainetik. Pasagune hori oinezkoentzat eta tximindularientzat bakarrik izango dela azaldu dute. Hala, pasabidera heltzeko sarbideak ere egokituko dituztela jakinarazi dute Aldundiko ordezkariak.

Bestalde, Arabeta industrialdetik sartu zein irteteko korridorearen lanak direla-eta sortu diren arazoei konponbidea ere emango ei diotela azaldu dute. Eroskiko biribilgunea (Berango) eta Urko ingurunea (Sopela) lotuko dituen errepide berria egiteko asmoa badago. Horren albotik, lanak uda aldean hasiko ei direla iragarri dute ardura-dunek. m

Garikoitz Gorostiaga > Gorlizko liburutegiko arduraduna

“Biztanle bakoitzak 2-3 liburu eskuragarri izatea gomendatzen dute, eta gu hori lortzen gabiltza”



Garikoitz Gorostiaga (argazkian): “Gorlizko liburutegiak 14.000 aleko ondarea dauka”

Kruxketa kalean dagoen Gorlizko liburutegia Eusko Jaurlaritzak martxan ipinitako EAEko liburutegien sareko partaide da dagoeneko. Udal Liburutegi Sistema Nazionaleko katalogoan parte hartzeak hainbat abantaila eskaintzen ditu, besteak beste: sarean dauden liburutegi denentzako txartela bakarra izatea, eta ondorioz, sareko partaideen eskaintza guztia eskuragarri izatea.

Gorlizko udal liburutegiko arduradun Garikoitz Gorostiaga harro dago eskaintzen duten zerbitzuaz, “Uribe Kostako liburutegirik garrantzitsuena gara, bai dokumentu kopuruaren aldetik, baita antolatzen ditugun ekintzen aldetik ere; eta beste liburutegi batzukaz aldenatuz, gutxi gorabehera, alde horretatik nahiko inportanteak gara”. Sopela, Barrika, Plentzia eta Urdulizko jendea ere hurbiltzen dela jakinarazi du Gorostiagak.

Udal Liburutegiko ondarea 14.000 ale inguruk osatzen dute, euskarazkoak dira 5.330, gaztelaniazkoak 6.300 eta beste hizkuntzetakoak 1.750. Liburutegiko aleetatik 12.800 inguru liburu edota dokumentuak

dira, 600 bat ikus-entzunezko lanak eta fonoteka 500 bat obrak beteta dago. Egunero 5 egunkari irakurtzeko aukera dago eta 60 bat aldizkari ere jasotzen dituzte. Gorliztarren %66 liburutegiko bazkide dira, eta guztira 2.900 lagun daude bazkide-tuta. Horren albotik zera adierazi du Gorostiagak: “IFLA erakundeak gomendatzen du biztanle bakoitzak 2-3 liburu eskuragarri eduki beharko lituzkeela; hori eskaintzea oso zaila da, eta gu lortzen gabiltza”. Horrez gainera, bi ordenagailuk sarean ibiltzeko aukera eskaintzen diete herritarrei.

«Hilero antolatzen dute euskarazko ipuin kontalarien emanaldia»

Bestalde, Gorostiagak liburutegitik antolatzen dituzten ekintza edo jarduerak go-raipatu nahi izan ditu, esaterako, “hilean behin ipuin kontalari baten emanaldia antolatzen dugu, beti euskaraz; ostera, enakusketei dagokienez, aipatzekoa da adibidez ekainean izango duguna: Comado Masacciren txotxongilo eta zirkuak”. m



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15

ALERGIA

Cristian Amezaga Asensio  
Sendagilea - Alergologoa

RINITIS

ASMA

URTIKARIA

Poliklinika Euskal Herria

Euskal Herria Kalea, 22  
48991 Algorta-Getxo  
Telef.: 94 491 34 62  
I.M.Q./ SANITAS

cianoplan Reprografía global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Antigua Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
http://www.cianoplan.es

- Imprimatze eta plano kopiak
- Karteak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak
- ermarkaketak







## Galeako fortea

Bilboko itsasadarraren sarrera babesteko 1742an eraiki zuten Galeako fortea eta, jakin ahal izan dugunez, 1779an zortzi kanoi zeuden bertan. Lehenengo Karlistadetan (1833-1840) kalte handiak jasan zituen; ondoren, 1852an, Punta Galeako lehehengo itsasargia paratu zuten bertan. Argazki hauek erakusten duten legez, luzaroan utzia eta ahaztua egon da Galeako fortea. Orain Aranzadi Zientzia elkartekoak zulaketa eta ikerketa lanak egiten dabilta bertan. Ostean, fortea zaharberitu eta jabetxe bat zabalduko da han.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





## Getxoko barrerak

Mikel Martinez

Luzaroan egin zuten protesta Getxoko auzokideek Metroa zela-eta herriko betiko tren geltokia ostu zietelako. Euren beste aldarrikapen bat trenbidearen lurperatzea zen. Antza, azkenean trenbidea lurperatuko dute. Hala ere, geltokia behin betiko galdu da. Argazki hau auzo-protesta haietako bat duzue, 1995eko azaroaren 11n egin zutena, Metroa lehenengoz abian ipini zuten egun berean hain zuzen ere.

GETXO, 1995EKO AZAROAREN 11

[berbetan]

Bilbotarra da, edo are gehiago, santutxuarra. Badira urte batzuk, ordea, Uribe Kostan bizi dela, eta besteak beste horregatik aukeratu genuen aldizkari honen lehenengo zenbakiko elkarrizketa nagusirako, azaleko argazki eta guzti. 1999ko udan izan zen. Orduetik hona euri asko bota du, eta ostarreak ere izan dira noiz edo noiz. Garai hartan, Julio Ibarra lan-mahaian ohikoagoa izaten zen lehenengo bigarrena baino. Eta hala izan da orain dela gitxi arte. Ibarra orain dela urte erdi-edo utzi zuen ETB, Bilboko Metroa joateko. “Hamar urte neramatzan -azaldu digu-, eta azkeneko bietan aro berri bati egiteko sasoia izan zitekeela pentsatzen ibili nintzen. Jakin egin behar da noiz aldatu, eta nik momentu onean utzi nuen, Teleberri audientzian nagusi zela”. UKren 100. zenbakia duzue hau, eta ospakizun handiagorik ezean, egokia begitandu zaigu lehenengo zenbaki hartako protagonista geurera ekartzea barriro. Izan ere, eta ia zazpi urte igaro arren, Julio Ibarra itzal handiko pertsonaia izaten segitzen du, telebistako aurkezle zein Metroko komunikazio-buru.

# Julio Ibarra

## Komunikaziorako dohaina

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—UKren lehenengo zenbakian zeuri egin genizun elkarrizketa. Besteak beste, oroimen txarra daukazula esan zenuen, Gogoratzen zara horretaz?

—Orain bai.

—Edozelan, gai izango zara telebistako esatari izatera zelan ailegatu zinen gogoratzeke...

—Halabeharrez. Ikasketak amaitu baino lehen Radio Euskadin hasi nintzen bekadun, eta handik ETBra joan nintzen. Garai hartan probak egiten ari ziren jarraitutasun-aurkezleak aukeratzeko.

—Jarraitutasun-aurkezleak?

—Gaur egun ez dago halakorik, baina orduan bai. Pelikula amaitu eta aurkezle bat agertzen zen pantailan, zera esanez: “Arratsalde on. Jarraian, albistegia ikusiko ahal izango duzue eta gero halako telesaila”. Lan hori egiteko probak egin zizkiguten, eta nik gaintu egin nituen. Zeregin horretan hasita nengoela, gaueko Telebe-

riko aurkezlea gaixotu egin zen, eta niri eskatu zidaten haren ordez aritzeko. Hala hasi nintzen Teleberri. Hiru urte eta gero, kontratua amaitu egin zen eta irratora joan nintzen atzera. Urte batzuk igarota berriro bueltatzeko esan zidaten, eta hala egin nuen, baina orduko hartan, albistegia aurkezteaz ez ezik, editatzeaz ere arduratu nintzen.

### “Duintasun profesionalari eusteak makilkada asko ekarri zizkidan”

—UKren lehenengo zenbakia kaleratu zenean, ETAre su-etena zegoen indarrean. Orduko elkarrizketan, komunikabide batzuei leporatzen zenien bake prozesua oztopatzea. Barriro gagoz bake prozesu batean, barriro su-etena. Zelan ikusten dituzu komunikabideak orain?

—Nik uste, bidaia luzea egin dugula orduetik hona, eta denek eduki dutela ikas-

teko aukera. Lehengo egoerarekin konparatuta hobeto gaude, baina horrek ez du esan nahi denek ulertu dutenik bake prozesu batek denon laguntza behar duela, eta ez bidean harriak ipintzea.

—Eta ETBn zeozer ikasi da?


—Baietz uste dut. Denon lanari esker zerbait aurreratu da. Nire garaian, ni saiatu nintzen beti duintasun profesionalari

eusten. Jarrera horri eusteak “makilkada” asko ekarri zizkidan, baina pentsatzen dut beste batzuk ez zirela ausartuko halako jarrera bati eusten, eta nirea ikusita orain ausartuko direla, ezta? Beti egoten da aurrerapausurik.

—“Makilkadak”, dinozu. Zelakoak?

—Mota guztietakoak. Ia-ia astero edukitzen nuen mahai gainean agindu bat, nire

Julio Ibarra bere bulegoko balkoian, eskuetan UK aldizkariaren 1. zenbakia daukala >





nagusia Legebiltzarerra joateko, nik ez dakit zer esan nuelako azalpenak ematera. Sozialisten edo popularren eskariak izaten ziren, PPrenak batez ere. Beste alde bate-tik, mehatxu asko, telefonoz. Faxistenak. Azkena izan zen ETAk martxoaren 11ko zera horrekin zerikusirik ez zeukala esate-gatik. Mehatxu larri bat jaso nuen, eta epaiketa eta guzti egin zen. Mehatxu egin zidana goardia zibila zen.

—Horrek guztiak “lagundu” egin dizu ETB utzi eta lan barri honetara etortzen? —Ez, ez, ez.

—Baina lasaiago bizi zara orain... —Kazetari batentzat, jende aurrean lan egiteak, telebistan edo irratian, baina batez ere telebistan, abantaila batzuk dauzka eta kontrakoa ere bai. Jendeak pentsatuko du: Teleberriko tipoa, kristorena, fama, arrakasta... Hori alde bat da, ilargiaren alde argia, baina badago alde iluna. Euskal Herrian oso egoera berezia daukagu, eta garai batean ETAk eskutitzak bidaltzen zituen komunikabideetara. ETBra ere iristen ziren, eta horrekin batera bestea, lehen esan dizudana. Baina beti azpimarratzen da ETArena, alde bakarra, inoiz ez da azpimarratzen Goardia Zibilaren aldetik edo Estatuaren aparatuaren aldetik beste presio batzuk jasotzen direla. Dena den, ez nau horrek bultzatu telebistatik alde egitera. Maila jakin batean dagoen kazetariak jakin egin behar du presioa jasotzen, eta egunero gaueko Teleberrin agertzeak mota guztietako presioak sortzen ditu. Ez bazara gai hori bere neurrian hartzeko, egin ezazu beste gauza bat.

—Metroan zaude orain. Zure elkarrizketa agertzen den UKren lehengo zenbaki hartan, kasualitatez, irakurle baten eskutitz bat dago, Getxoko geltokiaren eta Maidaganeko trenbide-pasagunearen inguruko ika-mikaz berbetan. Urdulizen ere badaukagu halako pasagune bat. Zertan da orain gai hau? —Uste dut Getxon lanak hasita daudela. Trenbidea lur azpitik joateko lanak, hain zuzen. Jakin badakit kexak daudela: antza,

lanok hasi direnetik etxe batzuetan dardarak igartzen dituzte. Metrok datu guztiak eskatu ditu txosten zehatza egiteko eta behar izanez gero neurriak hartzeko. Urdulizen, berriz, geroago egingo dira lan horiek. Dena dela, badakizu zer gertatzen den? Metro Bilbao metroa ustiatzen duen enpresa da, baina hori baino ez. Lanak, geltoki berriak, inagurazioak, disuasio-aparkalekuak... Bizkaiko Garraio Partzuergoaren ardura dira. Beraiek dira Metroaren jabeak.

### “Egunero gaueko Teleberrin agertzeak mota askotako presioak sortzen ditu”

—Eta zuek alokeran daukazue, halan esan baidaiteke? —Hala da, eta zerbitzu hori ustiatu baino ez dugu egiten. Trenak ipini, maiztasuna erabaki... Txartelen prezioa ere Partzuergoak erabakitzen du. Estrategiak, azpiegiturak... hori dena beraiei dagokie. —Sopelan guztien ahotan dabil Metroaren maiztasuna. Herritar asko kexu dira, oso eskasa ei delakoan. Eta hori bada zuen ardura... —Egia esateko, oso irtenbide zaila dauka arazoak. Metroaren zuzendaritzaren ustez, puntako orduetako maiztasuna egokia da: ia 5 minutuan behin unitate bat. Ordu horietatik kanpo maiztasuna ordu laurde-

### “Bilbo, Metrorik gabe, kaos izugarria izango litzateke gaur egun”

nean behinekoa-edo da, baina zenbatak hartzen du Metroa? 50 lagunek. Eta Metroa jendetzak eramateko garraioa da. Ez dago hain jende gutxi eramaterik. Hori da Metroaren zuzendaritzak duen pentsamoldea: masa kritikoa behar da. Derrigorez 1.000 edo 2.000 lagun, hortik behera dirua galtzen da. Edo bestela, gainerakook ordaindu beharko genieke txartela 50 horiei. Kalkuluak eginda, 12 euroko txartela

da hori, gutxi gorabehera. —Zu Larrabasterran bizi zara hain zuzen, eta beraz ondotxo dakizu Uribe Kostako korridorearen azken faseko lanak burutzen dabilzala. Gero eta errepide gehiago, autoak nongura, eta metroan ere gero eta bidaiari gehiago. Baina ez gara orain urte batzuk baino askoz biztanle gehiago. Zer gertatzen da? —Berbarako, garai batean familia bakoitzean auto bat zegoela, eta orain hiru. Eta nor bere autoan joaten da. Lehen esaten

zen: “Bilbok ez du metrorik behar. *Bilbainada* bat da, lan faraonikoa...”. Hamar urte geroago, 80 milioi bidaiari urtean. —Baina hainbestekoa da Bilbo barruko mugimendua? —Hara, geltokirik erabilienak Alde Zaharra, Moyua eta Abando dira. —Bai, baina jende asko joaten delako Uribe Kostatik horietara, beharbada... —Hori ere bai, baina etortzen direnek, gero, Metroa erabiltzen dute Bilbo barruan mugitzeko ere. Pentsa ezazu: 80 milioi bidaiari urtean. Metrorik ez balego, hau kaosa izango litzateke. Aitzitik, konturatu zaitez Metroa dagoenetik Bide Nagusiaren zati handi bat oinezkoentzat

dela bakarrik. Hori pentsaezina litzateke metrorik gabe. —Orain dela gitxi, baimen barik Metroko irudiak egiteko debekua kendu da. Zerikusirik eduki duzu horregaz? —Neuk kendu dut debekua. Hona iritsi nintzanean, gauzak nola zeuden ikusteari ekin nion. Nire arduretako bat bezeroarenaganako arreta da, eta konturatu egin nintzen askotan errepikatzen zela kexa

hori: ezin argazkirik egin, ezta kanpoaldean ere, geltokien sarreretan. Eta galde-tu nuen: zergatik dago debeku hau? Se-gurtasunagatik omen. Baina hori garai batean izan zitekeen, gaur ez. Gainera, Metroa erakargarria da jendarentzat, turistentzat. Koadrilla bat geltoki baten kanpoaldean jartzen bada argazkia egiteko, eta goarda badator errieta egitera, hori izango da etxera eramango duten *souvenirra*: goarda horrek egindako errieta. Eta guk ez dugu ezer irabazten horrela. Beraz, neure argudioak eman nituen eta zuzendaritzak onartu egin zuen debeku hori kentzea. —Askok esaten dute munduko metro gehienekin konparatuta gatz eta piper bakoa dela Bilbokoa. Ez musikaririk, ez grafitirik, ez artistarik... —Arima bako garraioa da, egia da, kriti-

ka hori neuk ere egiten dut. Eta ahal dudan heinean hori aldatzen ahalegindu-ko naiz. Badauzkat asmo batzuk, baina beste kontu bat da proiektuok aurrera egingo duten ala ez. —Zeintzuk? —Adibidez, halako gizarte-lana abiatu nahi dut, eta horretarako Arte Ederren Fakultatearekin akordioa daukat dagoeneko: karrera amaitzear daudenek euren lana Metroan erakus dezaten. Bestalde, asmoa daukat literatura eramateko Metroa, liburutegiak jarriz barruan. Akordioa egin nahi dut liburutegiekin hori gauzatzeko. Hirugarrenik, musikarekin zerikusia daukan beste proiektu bat daukat. Kontserbatorioko ikasleen ekitaldiak antolatu nahi ditut, geltokietan. Batetik, aukera emango diegu gazteei beren lana erakusteko jende aurrean, eta bestetik bi-

daiariak alaituko ditugu. —Zu bezain zale amorratu bati derrigorez aipatu behar: zelako urtea pasarazi digun Athleticek! —Bai, gehiegizkoa izan da. Nik asko sufritu dut behintzat, bazkidea naiz eta ikaragarria izan da. —Bazkidea ez ezik, klubaren laguntzailea ere bazara komunikazio kontuetan... —Bai, baina besterik gabe. Gauza asko esan da horretaz, gauza asko argitaratu da. Astakeria itzelak: komunikazio zuzendaria, koordinatzailea... Nik lagunak ditut Athleticeko komunikazio sailean, presidentea ere ezagutzen dut, eta laguntzeko prest nago. Baina lagundu besterik ez. Ez daukat kontraturik, ez dut dirurik jasotzen... “Pluriempleo mutimillonario” irakurri izan dut non edo non. Eta ez dago halakorik, inondik inora. m

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....  
 Kalea & zenb.....Herria.....  
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro  
 Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

**UK Uribe Kostako Aldizkaria**  
 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz  
 tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



JOKALARI BAT MARROA JAURTIKIZKEO PREST

## Zelten garaietatik

Maiatzaren 7a, goizeko 9ak, Astrabudua. Bizkaiko banakako *calva* txapelketa jokatzeko Durango, Ermua, Basauri, Bilbo, Astrabudua eta Barakaldotik etorritako 100 bat lagun elkartu dira han. Norgehiagoka Astrabuduko Los Charros Calva Clubak antolatu du. Baina ze demontre da *calva*? Gaztela aldeko jokoa da hau eta, antza, zelten eta iberoen garaietan dauka jatorria. Antzinako artzainen kirola zen eta behi baten adarra jotzen asmatu behar zen harri bat botaz. Gaur egun adarra barik egurrezko pieza (*calva*) jo behar da eta jaurkitzen den alea (marroa) metalezkoa izaten da. Joko edo kirol hau gurera kanpotik etorritako beharginen eskutik heldu zen aspaldian eta gero eta gutxiago badira ere, ohitura zaharrari tinko eusten diote Astrabuduan.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**


\* 19. orrialdean informazio gehiago



ASTRABUDUKO CALVA ZELAI ABAZABAL ALBOAN DAGO



NORGEHIAGOKA HASI DA



ORRIALDE HAUETAKO IRUDIETAN KIROLARIAK JOKOAN





JOKALARI BAT ESKUETAN MARROA DAUKALA, MARROA JAURTITIZEN DEN METALEZKO PIEZA DA



EPALEA KOLPEAK ZENBATZEN



PARTIDA BAKOITZEAN 40 JAURTIKETA EGITEN DITU JOKALARI BAKOITZAK



LURREAN KOKATZEN DA CALVA, JAURTITIZALEAREN 14,5 METRORA



CALVA MARROAK JO ETA GERO



EPALEAK BEHARREAN



SARI BANAKETA



MATERIALA BATZEN



ASTRABUDUKO LOS CHARROS CALVA CLUBA





## Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak  
ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza  
**ekainak 12**  
Areetako anbulatorioa  
**ekainak 13**

Zatoz odola ematera,  
ez itxaron!

Informazioa: 900 720 389



[liburuak]

## Pio Baroja

**Berrogeita hamar** urte bete dira euskal idazle esanguratsua Madrilen hil zela

**Hainbat** hitzaldi eta ekintza antolatuta dituzte Iruñean eta Donostian Pio Barojaren heriotzaren 50. urteurrena gogoratzeko; Gipuzkoa eta Nafarroa izan ziren eta idazlearen bizitzan protagonista.


Donostian, esate baterako, bi hitzaldi ziklo prestatu dituzte: lehenbizikoa, Barojaren pentsamendua aztertuko duena, maiatzaren 17tik 25era; bigarrena, Baroja abenturazalearen erretratua eskainiko duena, urriaren 24tik 27ra.

Iruñeko ekitaldiak, berriz, maiatzaren hasieran izan ziren eta, besteak beste, Fe-

### «Unamunoren, Valle-Inclanaren eta Marquinaren babesa jaso zuen»

lipe Juaristi, Iñaki Aldekoa eta Mikel Taberna idazleek hartu zuten parte.

Pio Baroja Donostian jaio zen 1872ko abenduaren 28an eta Madrilen hil 1956ko urriaren 30ean. Medikuntza ikasi zuen, baina urteak aurrera joan ahala, bere bokazioa zeharo ezberdina zela konturatu zen, hau da, idazlea izan gura zuela argi ikusi zuen. Bere lehendabiziko liburua, *Vidas sombrías*, medikua zenean erabiltzen zuen koaderno batean idatzi zuen. Horrez gain, urteetan zehar Euskal Herrietik kan-



Pio Baroja bere azken urteetan

po ibili ondoren, bere aberrira bueltatu eta ahaztuta zeukan bere euskaldun senagaz egin zuen topo berriz ere. Horrek izugarriko eragina izango zuen bere obran.

Publikoak ez zituen bere hasierako lanak oso kontuan hartu, baina Unamuno, Valle-Inclan eta Marquinaren babesa jaso zuen. Denboragaz, bere liburueta asko unibertsitateetan erabiltzen hasi zituzten, tartean, Sorbonan (*Zalacaín el aventurero...*).

Azken urteak Berako *Itzea* etxean eman zituen, bizitza bohemioaz nazkatutik. Hala ere, liburuak idazten jarraitu zuen hil zen arte: *Memorias*, *Leyenda de Jaun de Alzate...* m

liburuak



**Ero hiria**  
Javi Cillero  
Alberdania

Reno hiria da ipuin bilduma honen protagonista nagusia. Hiria bera eta pertsonaiak elkar lotuta daude eta horrek tonu dramatiko, ironiko eta komikoa ematen die narrazioei. Alabaina, ipuinek ez dute errealitatea islatu gura.



**Sorginak**  
Toti Martínez de Lezea  
Erein

Sorginen gaia landu du oraingo honetan idazle ezagunak eta, besteak beste, beraiei buruzko lekuak, esaerak, ohi-turak, elezaharrak eta sinakeriak bildu ditu, Euskal Herriko sorginen historiaren berrikusketa bat eskaintzeko. Juan Luis Landa, marrazkilarian irudiak daramatza.

[kirola]

## Getxo Arraun talde berria?

**Algorta Arraun taldeak** eta Areetako **Raspas Arraun taldeak** bat egingo ete dute?



Raspas eta Algortako arraunlariak elkarrekin

**Getxoko Udalak** arraunketa kiroldegia eraikiko du behingoz (ikus 12. or.). Horren albotik, udal arduradunek azaldu legeaz pabilioia Getxo Arraun taldeak kudeatuko du. Baina izen horregaz ba al dago talderik herrian? Egon eizen trainerua, Raspaseko eta Algortako arraunlariak osatutakoa, baina harrezkeroztik, bakoitza bere uretan dabil. Orain talde bakarra sortzeko Udalaren demari eutsi beharko diote. Zuzendaritza batzordeetako bi kideren iritzia dituzue ondoren: Gustavo Beikarenak (Raspas) eta Jon Urrutiarenak (Algorta).

Beikak zera dio: "Eraiki dezatela pabilioia eta gero egingo dugu berba. Gure jarraia bat egiteko baikorra da, baina behin pabilioia eginda dagoenean, orduan eta ez arinago hasiko gara hartu-emanetan, eta bazkideen iritzia ere kontuan hartu beharko dugu. Talde bakarra sortzea gure eta Algortakoen kontua da, Udalak egin dezala eraikina behingoz. Ez zaigu asko kostako fusioa egitea, Getxo trainerua atena genuen bi taldeetako arraunlariak... Halere, beste aukera batzuk ere badira: Getxo talde nagusia eta beheko

mailetan bakoitzak berean jarraitzea; pabilioia erdibana egitea... horretaz guztiaz eraikina egin ostean egingo dugu berba". Bestalde, Urrutiaren iritzia hurrengoa da: "Gauza inportantea da, behingoz, pabilioia eraikiko dutela. Onain arte nahiko txarto ibili gara denok gazteak lan egiteko mediorik ez genuelako, eta biok daukagu arazoak trainerua osatzeko, aurtan biok uretako dugun arren. Ho-

**«Getxo trainerua sortu zuten Algortak eta Raspasek, baina harrezkeroztik baikoitzak bere uretan jardun du»**

regatik guztion artean proiektu berri bat bultzatu gura dugu tripulazio on bat ataratzeko, eta gure iritziz, pabilioia egon baino lehen bideratuta egon behar du. Proposamen ezberdinak daude, gu talde bakarra sortzearen alde gaude; pabilioia ondo egongo da, baina, gure ustez, ez da nahikoa izango 2 klub edukitzeko. Denon ahaleginak batu behar ditugu, punta-puntan ibiltzeko, herrian zaletasuna berpizteko... Bestalde, talde historikoak desagertuko direla-eta, historia ez da galduko, talde berrian sartuko da". m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kanxa Kirol moda**



**350** m<sup>2</sup>


KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETEKO ELEKTROTRESNEN KONPON- SERVICIO

Lacofris, s.l.



& 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA



T: 430

Sarrikobaso 15

**Alfred Llorente** > biologoa

# “Gure kostaldea nahiko kaltetuta dago urteetan emandako industrializazioagatik”



Alfred Llorente Bilbon egindako liburuaren aurkezpenean. Informazio gehiago: [www.basozaleak.com](http://www.basozaleak.com)

**Nongoa den galdetzean, zer erantzun ez dakiela dio Alfred Llorente biologoak. Suitzarra jaiotzez, bizitza erdia Lamiakon eman du eta beste erdia Getxon. Gaur egun Gipuzkoan lan egin eta Derion bizi bada ere, Getxoko Basozaleak elkarte botaniko eta mikologikoko kidea izaten jarraitzen du. Txikitatik argi eduki du natur zientziak ikasi gura zituela eta libre daukan denbora apurra inguruko landareak aztertzen ematen du.**

—Maiatzaren 24an, *Bizkaiko Kostaldeko Ekosistema* liburuaren aurkeztuko duzu Getxoko IX. Jardunaldi Botanikoen barruan. Zer topatuko dugu?

—Liburuak hiru zati ditu. Lehenengoan, biotopoaz eta ingurune fisikoaz berba egiten dut. Prozesu geologikoak, meteorologikoak etab. azaltzen ditut. Bigarrenengan, landareen eta kostaldeko ekosistemek ezartzen duten baldintza latzez jardun dut. Hirugarrengatik, azkenik, Getxoko kostaldeko floraren egoera azaldu eta espezie interesgarrien katalogoa eskaintzen dut. Gutxienez, ezagutzera ematen zuzenduta dago, hiztegi nahiko tenikoa du eta.

—Zein da Uribe Kostako kostaldearen egoera gaur egun?

—Ibaizabal ibaiaren eskumako ertzean eta Abraren irteeran dagoenez, haizeen norabidean dago eta, beraz, euskal kostaldeko inguru kalteuenetarikoa da, industriek ibaira egindako isuriketa guztien ondorioz. Areatako hondartza, adibidez, askoz handiagoa zen lehen. Gaur egun, metro bakar batzuk

bestarik ez du eta, ondorioz, espezie batzuk desagertu egin dira. Gaur egun egoera apur bat hobea dela esan dezakegu eta udalek abian jarritako garapen iraunkorreko kanpainak lagungarriak dira.

—Zerbait egin ahal izango dugu...

—Gai konplikatu da; izan ere, ez dator bat daroagun bizimoduagaz. Jendeari hondartzak zaintzeko esan beharko litzaioke, modu zakarrean ez erabiltzeko. Gorrondatzen, esate baterako, golf txapelketak egiten dituzte, motocross egiten dute eta, askotan, surfariak autoak berruraino sartzen dituzte. Horri jende guztia babestutako guneetan etzan egiten dela gehitzen badiogu... Halere,

**«Kosta zaintzea konplikatu da. Ezin diozu inori esan hondartzara ez joateko!»**

oso gaxa da jendea konbentzitzea, ezin diozu inori esan hondartzara ez joateko!

—Orain dela 12 urtetik Basozaleak elkarteko kidea zara. Zein da taldearen eginbeharra?

—Mikologiaren eta botanikaren esparruan mugitzen gara. Alde batetik, barikuetan, 19:00etatik 21:00etara, jendeari zalantza argitzen ditugu, hori da eta elkarteari egin behar soziala. Bestalde, hainbat ikerketa zientifiko jarri ditugu martxan, urteak gure ezagutzak handituz doaz eta hitzaldiak antolatzen ditugu ikasitakoaren eta landutakoaren berri emateko.

—IX. Jardunaldi Botanikoak antolatu dituzue Algortan.

—Maiatzaren 13tik 31ra. Makina bat ekin-tza antolatu ditugu: landareen bilketa, botanika erakusketa, hitzaldiak Villamonteko kultur etxean... Elkartean egiten ditugun ekintzak erakutsi gura ditugu eta, bide batez, taldea herritarren artean ezagutzera eman. m

**Esakere** > “Daonen bonbon, eztaonen egon”



Ugaritasune dekunen, zer eñ? Inurri modun gorde, ala kontuko txitxarran modun gasta? Baia beste alde batetik ikuste, zeren faltan egoten gara gaur egun? Zorionez ez gara sarri egoten irudiko naufragon modun, yanarin faltan. Falta dakune diru da, esango dogu askok, bai... baia hori, iñoz asetuten ez dan gose bat da... Zer ete dau, osten, dekunen ondo erabili behar dogune, gero ez dekunen estu ez ibiltzeko? Ez ete da ikutu edo gorde ezin dan zeozer? Denpore?

Irudia: Gorka Vazquez

Esakera hau Inaki Gamindek baturiko da, eta beran "Urdulezko berbak eta bizimodu" liburun topako doazue.

**Gureberbakere 77**

Testua: **Xabi Bilbao**

**ZELAN ESAN**

**Ehun eta gehiau kontateko**

Denpore arin doa, kasik konturatu barik heldu gara chungarren zenbakire, 100garren UKra. Ixen daitezela askoz geihau! Sasoi ona ixen leite hau zenbakin kontuk, kontateko kontuk, gure euskeran zelan direzen ikusteko. Numeruk edo zenbakik esateko ordun ez dau diferentzi lar handirik euskera batuko modutik gure euskeran modure, baia ikusi egingo dogu horrek diferentziak ze zenbakiten agertuten direzen (osotu egingo doguz hemen, berbakere 37n aitetu genduzen zenbakik). Hemen doaz zenbaki batzuk, esateko modun (ahoskeran) berezitasune daukenak.

**Zénbet?**

- bedrátzi
- hamáka (hamaika)
- hogei edo hogei; hogétabat, hogétabi,... edo hótatabat, hótabi, hótairu,...
- berrógetamar, hirurógetamasei,...
- éhun edo áhun
- áhunde bat, áhunde bi, áhunde hirurógetamar,...
- millé, bimílle, hirumílle,...
- mille ta zortzirehun, millé zortzirehun te hótamazazpi,...
- milloi, milloia,...

**Zenbakik esateko ordun, kontun hartu honek gauzak**

Azenturik ez badogu idatzi, azkeneko sílaben doala azentu edo berbako gorakade handiena: *zortzi, hamalau -> zazpi, zortzi, hamaláu* eta abar esaten dire.

Zenbakik ez sarri ikusten dan gauza bat da -i edo -u bokalan atzen -a bat badator, -a hori -e bihurtuten dala:

- bat. *mila -> mille, ehun eta -> ehun de (ehunde bat, ehunde bi,...)*.
- Hau sarriten pasaten da bat zenbakigez: *asto bat, adar bat, baia belarri bet, behi bet, katu bet, saçu bet,...*
- Eta beste horrenbeste pasaten da *bi, hiru, lau, sei, zazpi, zortzi, bedrátzi* zenbakikez atzetik -a letr dekon atzizki iminten badake:
  - Biék etor dírez.*
  - Hirírek bat ez, zazpírek bat.*
  - Láuntzeko afari imin dot.*
  - Ze portalan bizi da? Hogéta seien.*

Eta gaurkoz agur, ahunde batgarren UKrarten!

**I**

**Inaki Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23  
Telletxe 1 T: 460 27

**Algorta**

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

**94 491 13 37**

**Errotalde**  
ileapaindegia

**HARTU TXANDA TELEFONOZ!!**

**T: 460 38 90**  
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

**GARBEO**

**GIZONENTZAKO**  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

**María**

**ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA**

Alangobbarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

**HARTU TXANDA**





gaizka escudero / basalbokoia

## Bildots

sukalkia

**H**asteko bildots zatiak gazitu, irinetik pasatu eta gero su bizian oliba oliotan urrezatu. Bildotsa baztertu eta olio berean barazkiak ondo txikituta (tipula, azenarioa, piper berdea eta berakatza) su ahulean bigundu arte egingo ditugu, 20 minutu edo. Ondoren atzera gehitu bildotsa lapikora. Basobete ardao zuri eta okela salda apur gehitu. Eduki hau guztia sutan bildotsa ondo egin arte. Txanpiñoiak eta ilarrak ere ederto onartzen ditu plater honek.

Amaitzeko barazki guztiak txinotik pasatu eta saltsa hau bildotsaren gainean bota. Plater hau dadotan zatikatutako patata frijitu puskekin lagun daiteke. <sup>m</sup>

osagaiak (bi lagunentzat)

• kilo erdi bildots • tipula bi • azenario bat • piper berde bat •



itsaso arana / jolastokikoa

## Xarel.lo

mahatsa

**M**ahats zuria da *xarel.lo*. Mahats-mordoa trinkoa, txikia eta gozoa izaten da eta aleak borobilak, azal lodikoak eta tamaina ertainekoak. Penedès aldekoa da eta *macabeo* eta *parelladarekin* batera, cavak egiteko asko erabiltzen da *xarel.lo*. Mahats honek cavari gorputza eta egitura sendoa ematen dizkio. Alella, Binissalem, Costers del Segre, Penedès eta Tarragona jatorri izendapena daukaten ardao zuriak egiteko oinarritzko mahatsa da *xarel.lo*.

Mahats honekin egindako ardaoak aromatikoak, orekatuak, eta zaporetsuak izaten dira.

Mahats honen izen bitxiak italieran du jatorria. *Chiarello* berbak *klarete* esan nahi du. Hala ere, *xarel.lo* beste izen batzuekin ere ezaguna da, besteak beste, *pansalet*, *panser*, *cartoixa*, *premsall blanc*, *palop...* <sup>m</sup>



## Völker taberna

Alemaniarreko garagardoa Sopelan



Adrian Rojo, tabernako jabea

**2004ko** abenduan ireki zituzten Adrian Rojo eta Maribel Nodarrek Völker taberna alemaniarreko atea Sopelan. Aurretik, Larra-basterrako denda batean egiten zuten behar, baina proiektu berri bat martxan jartzea erabaki zuen bikoteak. Hartara, Heineken konpainiagaz berba egin eta Estatuko lehenbiziko Paulaner Bierhaus inauguratu zuten. “*Guri irlandarren dekonazioa gustatzen zitzaigun, baina Sopelan bertan mota horretako taberna bat dagoenez, ezin izan genuen jarri, hark du eta Guinness egaz eksklusibitatea. Beraz, antzeko zerbait jartzea pentsatu genuen eta alemaniarren ideia nahiko originala iruditu zitzaigun*”, dio Adrian Rojo jabeak.

Alemaniarreko zein beste herrialdeetako garagardoaren karta zabala eskaintzen du taber-

nak, besteak beste: Paulaner Original Münchner, Paulaner Hefe-Weißbier, Paulaner Salvator, Desperados, Affligem, Adelscott, Guinness, Fischer eta Yuste.

Edariez gain, herrialde hartan ohikoak diren hainbat jaki dasta daitezke: mota guztietako entsaladak (lauchsalat, heringsalat, kartoffelsalat, hoch-seesalat...), saltxitxak, okela-pastela, umeentzako menua (kinderteller), alemaniar jatorriko pastelak eta guretzat arrotzak diren hainbat plater (würstchen, leberkäse, jägerschnitzel...).

Hala ere, ezagunagoak zaizkigun jatekoak ere eskaintzen dituzte: bokadiloak, hanburgesak, sandwichak, plater konbinatuak, etab. <sup>m</sup>

**VÖLKER Akilino Arriola, 7 - Sopela**

## JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

## Asador Goiez



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gaez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

**Aretxondo 14**  
Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**  
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 | T: 94 460 57 57 - ALGORTA

**Turikaldei**

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI  
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO



VIEJO

kopak eta giro jatorria

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA

**KONTXI**  
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T: 94 491 02 93

**G** gOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25  
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29  
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58  
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14  
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



**prentsa • aldizkariak**  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

**GOIZEAN**



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

**aldizkaria  
etxean jaso  
nahi baduzu**



uk@aldizkaria.biz  
94 491 13 37

[horoskopoa]

**URA**

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Ekaitz izugarria darabilkizu buruan. Trumoiak eta justuriak amaturu gura zabilza, baina ezinezkoa egiten zaizu. Antsietatea, urduritasuna... Ez al duzu pentsatu profesional batengana jotzea? Ez litzaizuke txarto etorriko.

**AITZURRA**

t



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Ez zaitetz eguzki izpiez fidatu, oraindik ez dute behar bezala berotzen-eta! Udaberria nahiko aztoratuta dabil azkenaldi honetan... Txamarra janzten duzunean bero eta hurrengo egunean manga laburrean atera eta sekulako hotza!

**GARIA**

t



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Aldamenekoen arazok izugarritzko burukominak eragiten dizkizute. Zure ingurukoei bizitza hobetzen denbora larregi ematen duzu eta zure gauzak behar bezala konpontzeko behar duzun energia guztia xahutzen ari zara. Kontuz!

**META**

t



(Irailak 17 urriak 16)  
Ez duzula horoskopoa dioena sinesten? Zer ari zara, bada, lerrook irakurtzen? Ez gehiago besteen aurrean gogorrena egin eta onartu, behingoz, zure patua astroen menpe jarri duzula. Badaezpada ere...

**OTSOA**

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Eguna eta gaua; zuria eta balza; negua eta uda; itsasoa eta zerua... Zu eta zure bikotekidearen artean ez dago grisik, zeharo ezberdinak zarete. Horixe al da hainbeste urtean alkarregaz egoteko sekretua?

**HOSTOA**

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Ez da inor zu bezain ondo bizi. Badakizu bizitzaren zukuari bere azken tanta ere ateratzen! Beti irribartsu, beti baikor... Zugandik ikasi beharko genuke balazta barik arinetan igarotzen den bizitza honetako apopitook!

**LASTOA**

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Orduak eta orduak ematen dituzu zure ordenagailuko lehiotik kanpora begira, zure logelan gatibu. Ez al duzu atera behar? Izugarritzko mundua daukazu deskubritzeko, ukitzeko, dastatzeko, usaintzeko... Teknologia barriak ondo daude, baina itsutu barik!

**HAZIA**

t



(Urriak 17 azaroak 15)  
Iratzargailuak goizegi jo du, beti bezala. Armozia jan, dutxa freskoa hartu (norbaitek ur berro gastatu du), ahal izan duzun moduan jantzi eta oraindik begiak zarraturik zenituela beharrera joan zara. Eguneroko ohikeria!

**ADARRA**

t



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Arropa barriak erosten dituzunean barrituta ikusten duzu zure arima, beraz, aldatzeko gogoia izanez gero, kalera irten eta gasta ezazu aurreztuta duzun diru apurra. Baina gogoratu: itxura ez da mundu honetan garrantzitsuenak!

**EGUZKIA**

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Nagusia zarenean dirutza egingo duzula esan zizun sorgina pirulinak eskuko zimurrak irakurtzean. Halere, hor geldirik egonda ez zaizkizu txanponak zerutik jausiko, mugitu beharko duzu eta zure merituzak etorkizun oparora eraiki.

**IRATZEA**

t



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Sekretuak gordetzeko dira, motel! Txutxumuxuak armarik arriskutsuenak dira eta laster etorriko zaizu nonor kontuak eskatzen. Kontuz ibili, berba bat nahikoa da-eta lagun minena ere betiko galtzeko. Aho itxian eulirik ez...

**NEGUA**

t



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Orain gogor aritzeak bere fruituak emango ditu laster. Azkeneko azterketak hemen daude eta beharrez gutxi falta zaizu udako opor epel eta freskagarriak hartzeko. Eutsi gogor, azken txanpa besterik ez zaizu falta-eta! leuuup!




**mungia**  
oKINdegia

*Algortan badaukagu  
artisaunen ogia  
izen eta jatorriz  
da "ogi mungia".*

*Goizero lortzen dogu  
obispoen guleria  
probatu bada edo ez  
dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA



KEKO

**LUMA aldizkariaren eskutik**

**Ezker eskuin**


1. Edukiera handiko ontzi. 2. Tabako zilindro. Kontsonantea. 3. Irtenbidea. 4. Leun eta bigun. Basa animalia. 5. Uribe Kosta. Alderaketak egiteko partikula. Kontsonantea. 6. Kontsonantea. Barazki mota. Zilarren ikurra. 7. Talde. Altzari mota. 8. Zirgatzaila. Ez eme. 9. Biloak. Atzizkia. Kontsonantea. 10. Haur txiki. Intsektu bizkarroi.

**Goitik behera**

1. Ezin da ezagutu. 2. Toka, dira. Lore. 3. Bizkaieraz, herdoil. Zeuden. 4. Antilletan eta Guyanan bizi den herria. Gauza. 5. Iratze, garo. Iskiluak. 6. Nafarroako ibarra, Erriberriko merindadean. Kontsonantea. 7. Edonoizko. 8. Gizon izena. Bokala. Ez eme. 9. Kontsonantea. Erbioaren ikurra. Gipuzkoako herria. Kontsonantea. Laidogri.

**Soluzioak**

I	R	R	O	Z		I	N	I	N
R	V	K	V	K	V	E	L	I	
R	V		I	R	V	G	R	I	Z
V	I	V	H	V	M	I	L	E	
G	V	V	B	B	E	Z	T		
N	O	N	I	B	A	I	B	K	U
I	R	E	Z	V	I	H	G		
V	I	D	E	A	B	I	D	E	V
R	I	G	A	R	O	A			
Z	I	N	T						



asmatu eta irabazi > **bi lagunentzako bazkari bat**



**Nor da?**

- Gasteiztarra.
- **Erdi aroko gaietan aditua da.**
- **Makina bat nobela historiko idatzi ditu.**

> Aurrekoaren erantzuna: Gandhi  
> Irabazlea: **Ander Goikoetxea \***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

*Usategi*  
kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**  
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



**Basurto**

Algorta S.L.

altzariak

**LEHEN, ORAIN ETA BETI**

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • **ALGORTA**



**Bittor Egurrola**

**Getxoko institutua, 1977**

**Hamaika urte** lehenago sortua (1966an), Bizkaian egon ziren lehenbiziko institutueta bat izan zen Getxokoa. Garai hartan ez zegoen ez Getxo I, ez II, ez III; Getxoko Institutua zen, beste barik, herrian zegoen bakarra zen-eta. Inguruko ikastetxe pribatuetan, batxilergoa irakatsi arren, ez zegoen PREUrik eta horregatik ikasle guztiak institutu honetara joaten ziren ikasturte hori egitera, 1970-71 ikasturtera arte. Bestetik gogoratu behar da 80ko hamarkadaren hasieran Julio Caro Baroja izena ipini ziotela institutuari. Goiko argazkian azaltzen diren artean bospasei baino ez dira irakasle, eta hala direnak zuzendaritzako kideak dira. Antza denez erretratu hau egin zen egunean bazkari bat antolatu zuten irakasleak ez zirenentzat. Garbitzailak, atezainak, lorezaina, idazkariak... denak nahastuta eta elkarrekin daude argazkian. Ederra. m

**Zutunik:** Maximino Elorrieta *Maxi* (GB), Pilar Basauri *Pilarin* (GB), Valentin (GB), Juan Rodriguez (GB), Silvino Alonso, Rosa Lopez, Santi, Maite Tellitu, Mari Feli (?), Sole Espina, Quilina Tazo.

**Lurrean:** Angel Martinez, Juan Montero, Gloria de la Fuente, Juan Antonio Salcedo, Antonio Escudero, Dora Roncero.

[aitormenak]

**TXETXU UGALDE** > kazetaria

# “Salatariak eta lausengariak diren pertsonak biziki gorroto ditut”

Testua: **Oiane Moran** / Argazkia: **Asier Mentxaka**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Naizen bezalakoa naiz, naturala.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Hainbeste daude! Gogokoen dudana, agian, *Tiburón* da eta Queen kapitainaren papera egitea gustatuko litzaidake.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Jesukristo. Gizon bezala miresten dut, ez beragan sinesten dudalako.

**Ohitura txarren bat al daukazu?**

Ez daukat ohitura txarririk. Garagardea edatea, adibidez, oso sana da.

**Aitor dezakezun bizio bat.**

Bizioak ezin dira aitortu.

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?**

Azkena, Ibizara egin nuena. Euskal Herritik zeharo aldentzen da.

**Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?**

Salatariak eta lausengariak biziki gorroto ditut. Ezin ditut ezta ikusi ere egin!

**Zein da zure ametssetako bat?**

Oraingoa, Athletic lehenengo mailan geratzea.

**Lo egiteko ezer janzten al duzu?**

Kantzontziloak, besterik ez.

**Zer gabe ezin zaitezke bizi?**

Ez emazterik ez semerik gabe.

**Zein da ikusi duzun azken filma?**

*Diarios de motocicleta*, oso ona.

**Eta irakurri duzun azken liburua?**

*La sombra de Lanzuri - El Ayalés*, Jose Luis Urrutiarena. m

**LABURREAN**— Txetxu Ugalde kazetari ezagunak *Tribuna de Marbellan* idazten hasi zuen bere ibilbide profesionala. Halaber, *Marca*, *Deia* eta *El Correo* egunkarietan zein Rato irratian kolaborazioak egin ditu. Hala eta guztiz ere, telebistan egindako lanagatik egin zen Euskal Herrian ezagun eta, besteak beste, *Teleberri*, *Eguraldia*, *El Derby*, *Lo que faltaba* eta enpresariengatik *Generación XXI* saioak aurkeztu zituen ETB-2n. Hainbeste urtean Euskal Telebistan behar egin ondoren, gaur egun, Canal Euskadin aurki dezakegu Bilboko kazetaria, *TX* gaueko magazina aspalditik bere alboan izan diren kolaboratzaileak aurkezten.



**Euskara, aukera paregabea**

**EUSKARA MERKATARITZARA**

Getxoko merkataritza euskalduntzeko egitasmoa